

LUTXO EGIA

Paperezko hegazkinak



Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2002 Lutxo Egia

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2002ko maiatza

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

*Tamsin, Andy, Ben, Alex,
Nino eta Barbararentzat.
The monster is my friend.*

...egunkarietan gaude,

baina mapetan ez...

ZARAMA - J.L. LAFUENTE

Bravo Spain. Come to Bilbao. Don't expect to find a single museum, here the newest is inside and outside. Metroa ohi baino beranduago heldu zen Victoriako geltokira. Lanak ei zeuden Seven Sisters eta Tottenham Hale-ren artean. Bozgorailuetako ahotsak ez zekarren larririk. Lanak ziren. Londres lana da.

Neguak lehena du gaur. Londresek lehenbiziko belarrondokoa eman ziola aste batzuk bazi-

ren arren, hiriko orrazkerez sorgindurik segitzen zuen Galderrek. Are gehiago, erabat sinetsita zegoen ezingo ziela sekula ihes egin. Lur azpiko pasabideek kalpar bilduma ederra aurkezten zuten: afaritarako orrazkerak sakelako telefonoi itsatsitako orrazkerak iruzur egiteko orrazkerak maltzurkeriarik gabeko orrazkerak zoko batean maitatzeko orrazkerak... Emakume beltzen orrazkerak ederresten zituen gehien. Gainerako bidaiariei bezain garestia ateratzen zitzaien baina bazen alderik batzuen eta besteen artean.

- Artea barrenean eta kanpoan? Guggenheim??? Afroingelesok kasko gainean eramaten diagu gau eta egun.

Art inside eta art outside.

Warren kalean langarra ari zuen. Metro-geltoki inguruan oro zen euritako beltz euritako kodrodun euritako gorri-berde euritako zahar. Ezinezkoa zen eraikinen goialdeetako publizitatea ikustea, guardasolek dena estaltzen baitzuten. Jose Urkidi, Erandioko gudari zaharra, ikaragarri haserretzen zen Galderrek esaten zionean Bilboko eta Londresko eguraldia antzekoa zela.

- Ingelesak eta bankuak dira bardinak. Eguraldi ederra egiten dauenean guardasola eskaintzen deusue eta eguraldi txarragaz, osterak, kendu. Amarru eta traizinoa daroez odolean.

Geltokiko sarreraren ondoan kiosko batek munduko gertaerak ematen zituen egunkari berdinetan, gertaera berdinak balira bezala. Ez zegoen zorioneko museoaren aipamenik. Hura barik, ertz batean euriak Espainiako kazetetako orrialde deigarriak erasotzen ziren. Gertaerak ematen zituzten haiek ere, gertaera espainiar berdinak. Titularrak irakurtzen ari zela, Galderrek egunkari-saltzaile pakistandar baten begiak sumatu zituen bizkarrean, aizkora baten gisa. Ez zen zaila antzematea kanoi-zuloetako balek zekarten sutautsa:

- Espainiarrak eta italiarrak berdinak zarete. Egia duk.

Pakistandarrari nekeza zitzaion asmatzen begiluzea espainiarra ala italiarra zen. Londresen oro da euri fin zirimirri langarra rain. Galderrek berak ere ez zekien Espainiako ala Italiako euskalduna zen. Euskal Herriko prentsa ez zen haraino iristen eta garestia zen Madrilgoa. ¿A

dónde quiere llegar Pujol? No se puede imponer el aprendizaje de una lengua.

Taberna batean elkartu zen Gerra Zibileko kazetari ingeles ospetsuenaren bilobarekin. Emma. Pintak egonean zeuden artean. Almorztuaren ordua zen, desordua eta desordena. Gustura ziruditen bezeroek. Ez zioten elkarri deus ere esaten. Denek lepoa makurtzen zuten bakon zati baten bila eta denei errepidearen nekea nabaritzen zitzaien mugimendu dorpeetan. Londresko autobus-geltoki nagusia zegoen aurreko espaloian. Bidaiariak ziren bezero gehienak. Bidaiaria zen Galder ere. Bidaiari mutua edo mutuarazia. Espainiar edo italiarra.

Oso dotore jantzita agertu zen neska ingelesa. Lanetik bide zetorren. Liverpool kalean zeukan bulegoa, eta han marra batek bereizten ditu dotore janzten direnak eta praka maiztuak janzten dituztenak. Janzkerak egiantzekotasuna ekarri gura zion topaketari. Behar zuen. Benedict Caponen biloba zen Emma. Gerra Zibileko kronikaririk garrantzitsuenaren biloba. Espainiako gerra hogeigarren mendeko gerrarik ankerrenetarikoa izaki.

Emakume polita duk, neska beautiful.

Begitandu zitzaion egundoko mesedea egiten ari zitzaiola. Ederki aski ezagutzen zuen irribarre ingeles gezurrezko hura. Londresko aldi baterako lan-bulegoetan ikasia zuen. Kanpotar bat atletik sartu orduko egin ohi dute irribarre hori lukurreru zeken abarizios berriek. Lana da. Londres lana da.

Margaret Astor haragitsuak tabernatik alde egiteko gogoia ezkututzen zuen. Galderrek ere bere egin zuen handik urruntzeko nahia. Capucino negargarri bana edan ondoren, mahai gainean utzi zuen neska agertu aurretik irakurtzen ari zen egunkaria. Astunegiak iruditzen zitzaizkion hitz ingeles adigaitzak.

-Lagun bat ikustera joan gura diat -esan zion Emmak-. Fernando dik izena.

Galderri bestelako asmoak bururatu zitzaizkion. Hausnar egin zuen. Ben Caponek eta Gerra Zibilak eraman zuten Londresa. Emmak, haren bilobak, eroan zuen taberna hartara. Neska ala emakumea. Girl ala woman. Zinez eskertzen zuen hark gazteleraz ederto egitea.

Ofizial errepublikarrak benetan eskertu zuen Capon gazteleraz ederki mintzatzea. Begitarte hitsa zeukan. Ebakiondo belztu batek ezker-eskuin zeharkatzen zion bekokia. Nekez ageri zitzaion erakutsi nahi zuen begikotasuna. Berba ingeles adigaitzak korapilatsuegiak ziren.

Oinez zihoazen, Tetuan de las Victoriasen gora. Ofizialak aitortu zion faxistek, fraideek, dirudunek eta susmopean zeudenek bazekitela, CNTko miliziarrekin topo eginez gero, aukera gutxi zegoela paseotik libratzeko. Tetuanen bertan ematen zieten tiro garondoan, Legazpiko hiltzegieko sarreretan Casa de Campon Maudesko errepidearen ondoan Chamartinen Fuencarralen Villaverden. Kordobako frontetik zetorren heriotza-treneko dozenaka prisionero metrailatu zituzten Pozo del Tio Raimundon. Vallecasko lur-emaileak 189 gorpu zenbatu zituen. Ez zegoela ados hilketa haiekin. Aukeran txekak nahiago zituela, baina egia entzun gura bazuen, haietako sasi-epaiketak ere ez ziren ba oso fidagarriak. Gezurra zirudien arren, matxinatuen lagunentzako tokirik seguruena kartzela zela. Caponek burua mugitu zuen zalantza adierazi nahian. Mo-

deloko hilketak ekarri zizkion gogora ofizialari. Porlier eta Ventasen egokitutako kartzelak. Ventaskoak Aravacan fusilatzen omen zituzten; Ramiro de Maeztu ABCko kazetariak aurpegiratu ei zien ez zekitela zergatik hiltzen zuten. Ofizialak gogo txarrez onartu zuen harena, baina kontuz ibiltzeko informazioarekin. Faxistek ankerrago jokatzten zuten beti, garbi geratu behar zitzaion.

- Londresen baino hobeto ez duk inon jaten -ausartu zen Emma.

Galderrek barregurari eustea lortu zuen nola edo hala. Edukazio oneko agertu gura zuen. Ez zekien xedea iritsi zuen. Ematen zuen Emma ohartua zela astakeria zeritzola aipatutakoari. Kanpoan oro zen euritako beroki eskularru umbrella presa. Tabernatik ikusita zentzugabea zen presa. Alferrikakoa zen euriari ihes egiten ahalegintzea. Alferrikakoa zen barregura irensten saiatzea.

- Londresko Meson Bilbaon ondo ematen ditzen jaten, hori besterik dun.

Emmak bereari eutsi nahi zion. Gerra guztiek bere setak dituzte. Halaber, gerra guztiek beren goseteak dituzte, beren urkiditarrak beren guda-

riak beren otserriko berriemaileak. Jose Urkidi gudari erandioztarrak ez zuen Caponen aditurik. Kazetaria Arenaleko Torrontegi hotelean bizi zen. Erran zioten Carlton hobea zela baina, tamalez, Agirreren gobernuaren egoitza bilakatu zen, bonba bat Bilbaina Soziedadean jausi ondoren. Kazetari ingelesek, ordea, bazekiten oso toki gutxitan jaten zela Torrontegin baino hobeto. Bilbo goseak zegoen eta horrek konponbide hobea zuen hotelean, non Asturias eta Santanderko errefuxiatu eskuindarren eta kazetarien diruak mirariak egiten zituen. Caponek susmoa zuen hotel hartan berdin jango zela Bilbao erori ostean.

Galderrek Jose ekarri zuen gogora. Haren iritziz, Santoñako ziegetan zomorroek hobeto jaten zuten Euzko Gudarosteko gizonak baino.

- Behin bakailaoa jan genduan guk. Gerrea amaitu barria zan. Eta amaierak garaileak eta garaituak dakarrez. Batzuk nahiz besteok jan genduan gauza bera egun haretan. Tira ba, gutariko batzuk uko egin geuntsan garaileen janari. Alferrik, ba. Kanposantuetan eta presondegie-

tan garaileak eta garaituak ezin deutsie alkarri
ihes egin.

- Santoñññ?

Bistan zegoen Emmak ez zuela Kantabriako
herriaren berri. Gerrak azkentzen diren heinean
hasten dira gainezkutzen kartzelak. Bost mila
bederatziehun eta laurogeita hemeretzi gehi
Jose, esan zuen Galderrek. Hark ez zuen adiera-
zi nahi haren aitonak ezagutu ez zuenik. Ezagu-
tu egin zuen, barrura gabe. Capon Ajuriagerrare-
kin zegoen *Seven Seas* itsasontzia soldadu
errendituak jasotzera etorri zenean. Joserren
ustez, Ajuriagerra Miarritzetik itzuli izanak frogat-
zen zuen eurek, abertzaleek, ez zutela ezelako
traiziorik egin. Emmari Bilbo erori baino lehena-
goko gertakizunez baizik ez zion galdetu behar.
Eta Galderrek detaile ugari zeukan itauntzeko.

- Bai, Santoña.

Beck's

«ETAk hogeita lau ordu eman dizkio Ermuko zinegotzi bati». Iragarri baino gehiago, xuxurlatu egin du. Teilatu beltzak erre-sunda dakar. Hau da Ermua telebistan ikusi duzun lehenengo aldia. Ondoren beste hiri batzuk agertu dira. Bilbo: Gran Viako zentimetro bakoitza gainezka. Baita Madril ere. Cadiz. Ez, ez da Cadiz, Malaga baino. Aurpegiren bat ezagutzeko ahaleginak egin dituzu, guztiz ezinezkoa dela ongi baino hobeki dakizun arren. Malagan ez duzu inor ezagutzen. *BBC* eta *Channel 4* telebista-kateen irudiak hormetara zabaldu dira. Seven-up lata amaiturik, Beck's botila bat ostu diozu Paolori, amico basco esaten dizun pisukide italiar gogaikarriari. Erlojuari behatu diozu. Fiona iristear dago. Birritan esan du berandu helduko dela. Telebistako hitz ulergaitzak samaldaka eta galopan datoz. Itotzerainoko beroa sentitzen duzu. Tranbalaka datoz.

ETA president Ermua Bilbao Madrid Spain today president terrorist group Basque Country.

Berbak bakarrik ulertzen dituzu. Seville. Seville erraza da. Baina berbek ez dute mintzairarik sortzen. The rain in Spain stays mainly in the plain. Ez zaude batere seguru «*ETA in today on Ermua of Mr Aznar from Spain*» edo «*The president with Basque out Country of Madrid terrorist Bilbao group*» aipatzen duten. Milaka manifestari azaltzen dira albistegietara. Lehena eguerdian ikusi duzu. Ondoren kriket, landareen mundua eta simpsondarrak etorri dira. Telebistari begira geratu zara ezer aditu gabe. Fionari ere nekez ulertzen diozu. Batzuetan astiro errepikatzen ditu hitzak. Ez dakizu, ordea, zer errepikatzen duen. Ez diozu deus konprenitzen.

Dirudienez, bezperako solas-saioa eskaintzen ari dira. Hamabost urtetik beherako neska-mutilen txorta-jotzeak adar-jartzeak sexu-perbertsioak dituzte hizpide, seguru. Zuk fucking bakarrik endeleгатzen duzu, baina ez hitza bera endeleгатzen duzulako, turuta batek fucking guztiak itotzen dituelako baizik. Fucking, turuta. Fucking, turuta. Fucking turuta, turuta fucking. Baina ez duzu zalantzarik zertaz ari diren. Beti

sexu harremanak dituzte hizpide. Hobe turutak Fabioren zurrungak itoko balitu.

Paolo lurrean datza, artaziez txiskeroaz komuneko paperaz aldizkariz inguraturik. *Acid Attack*-en azken alea da. Botila hutsak daude han-hemen. Hirugarren laguna, nor denik ere ez. Zangalatraba dago beste besaulki batean, turutari eta zurrungei jaramonik egin gabe. Barrandatu egiten duzu. Uztaiak dauzka belarri bekain sudur ezpainetan. Italiartzat jo duzu. Eder dago begiak itxita. Horrelaxe ikusi nahiko zenuke Fiona.

Telebistaren menpe geratu da etxea. Politikari ezagun bat ikusi duzu aspaldiko partez. Abaildura nabaria zaio. Zuk zeuk ere sumatu duzu nekea. «*Spain in well of Lehendakari with terrible out PP and PSOE*» entzun diozu, baina ez zenuke lepoa egingo. Beste politikari baten prentsa-agerraldiaren segundo batzuk eskaini dituzte ondoren. Haserre dirudi, gutxitan ikusi duzu horrela. «*Basque please on live PNV off and of citizens for and in Basque bad, bad, bad. In Ermua Basque of world bad, bad, bad*» azaldu die kazetariei. Baina oraingoan ere ez zaude guztiz zure-

kin. Fuckingsak bezain itoak, zurrungak bezain zulatzaileak dira hitzak. Fionaren telefono-dei batek soilik bortxatu ditu. Ez diozu larregi ulertu. Egia esan, Ermua bakarrik ulertu diozu, eta kostata. Konturatu zara esatariaren berbak eta Fionarenak antzekoak direla.

Hizkuntzaz gogaiturik, hiri-barnera joan zara eguneko prentsa erosten. Auzunera egun bat geroago iristen da, Londresko auzune gehienetara bezalaxe. Egunkari espainolak apal batetik hartu eta dirutza laga duzu salmahaian. Buelten zain zauden bitartean, argazki eta titular handiak begiztatu dituzu Europako eta Estatu Batuetako kazeten lehen orrialdeetan: «*Les Espagnols révoltés par le chantage de l'ETA*», «*Spagna in piazza contro l'ETA*», «*Spain prays for hostage facing death deadline*», «*ETA droht mit der Tötung eines Eatführten*», «*ETA descerraja 2 tiros en la nuca de España*». Gorriturik datoz letra txikiak. Gertaeren esanetara bizi diren itzalak dira, haria harria harlauza.

Bueltak hartu dituzu. Zer esan nahi ote dute Tötung eta Eatführten-ek? Metrora abiatu zara egunkariak besapean. Igande sargoritsu batean

hura da tokirik lasaiena egunkariak irakurtzeko. Noizean behin Fionarekin sartzen zara. Baina berak ez du irakurtzen. Gaur ez da etorri. Badira egun batzuk zertan dabilen ez dakizula.

*Dena doa eztenaren bidean
eta egun batean ezer ezta izanen, ezpada
ezer eztena.*

GABRIEL ARESTI

Diz-diz egin zuten Emmaren begiek.

- Fernandok urte asko eman dik hemen, baina sortzez Iruñekoa duk.

Begi biziak ziren, ume bihurri batenak beza-lakoak. Galderrek pentsatu zuen Fernando baten beharrean egon zitekeela. Edo Angel baten beharrean. Edo Carlos baten beharrean. Edo Ben Capon baten beharrean.

- Egunkariak kazetari bat behar dik Espainian. Hara joan hadin nahi diagu. Zer deritzok?

Zuzendariaren eskaerak ez zuen Capon ezustean harrapatu. Bazekien halakorik eskatuko ziola goiz edo berandu: nahi diagu... Abisiniatik bueltatutakoan beste gerra batean ez zela murgilduko adieraziagatik ere. Nahi diagu... Ez zuen

oihu lazgarrik entzun nahi. Ez zituen soldadu italiar engainatuen gorpuak usaindu nahi. Ezikusiarena egin gura zien gizonen miseriei. Odola etorri zitzaion gogora. Pamplona ezagutzeak kitzikatu egiten zuen, baina eskarmentuak ziotson ez zuela Hemingwayren hiriaren arrastorik topatuko.

Fernandoren etxe aitzinean gelditu ziren. Bere luze-zabalean presondegi zahar baten tankera zeukan, lohi eta goibel. Basauri Martutene Nanclares San Roke. Auzune pobreenetan etxeek beti dute presondegi tankera. Santoña.

- Gure kartzeleak lau pisu eukazan. Ziegeak lau metro luze eta bi zabal ziran, eta leiho txiki bana eukien goian. Bakotxean zortzi edo gengozan. Ez genduan oherik, zementu gogorra eta hotza baino.

Etxeak hiru solairu zeuzkan. Hegal batetik bestera, korridore luze batek errektangulu itxura ematen zion. Pisuetako atea ziegetakoak izan zitezkeen. Pasabide estuan talde bateko mutil luzangak borroka plantak egiten ari ziren. Neska batzuk barreka eta garrasika oiloturik. Galderrek bazekien beltzak zirena aurpegirik ikusi gabe.

Auto deportibo bat aparkaturik zegoen aurrealdean.

- BMW duk Londresko beltzen autoa. Black Men on Wheels esaten zieagu -esan zuen Emmak.

Muker itxurako gazteak salatzen zituzten hainbat graffitik janzten zuten iruindarraren pisuko egurrezko ate erdi puskatua. Kanpoan hezetasuna zitala zen, negua. Londres negua da. Atepostan Fernandok bere burua aurkeztu zuen. Galderrek hirurogeita hamabost urte bota zizkion lehen behakoan, laurogei, agian gehiago. Jose Urkidi bera zitekeen. Edo Ben Capon.

- Gerrako kazetari bat. Ingelesa. Iparraldeko frontean ibili zen batik bat, Bilboko erasoaldian.

- Ez dot haren akordurik, Galder.

Manuel Ziarsolo. Estepan Urkiaga. Iñaki Eizmendi. Jesus Intxausti. Jose Maria Arizmendarrieta. Alejandro Mendizabal. Agustin Zubikarai. *Eguna* eta *Euzkadi*-koak bazter batera, Josek bazekien 36ko kazetari guztiak gezurti hutsak zirela.

- Guk Barazar eta Dimako lubakietan, bernak ederto lokazturik, irakurri ohi genduzan. Halan

jakiten genduan zenbaterainoko triskantzeak egiten eben geure kaskoen ganetik Bilborantz abiatzen ziran Heinkel eta Junker doixtarak. -Josei lokiak nabarmentzen zitzaizkion hunkitzen zenean; sorbaldak goratzen zituen, berriz, Galderrek kanpoko kazetariez galdetzen zionean-. Handik hona, mutil, gauzak goitik behera aldatu dira, zorionez aldatu be.

Capon nor zen Josek ez jakiteak ez zuen Galder harritzen. Ez zuen zertan jakin. *Euzko Gudariak* behar den moduan abesten ere ez zekien. Agian, horregatik ez zen Euzko Alderdi Jeltzaleak antolatu omenaldietara joaten. Caponek, oster, bere senideak balira bezala gogoratzen zituen ikasitako izen guztiak: politikarienak ofizialenak kazetarienak hildakoenak. Den-denak. Agirreak sanjurjoak largo caballeroak castilloak serrano suñerrak. Denak.

Emmari begiratu zion azalpen baten eske, baina zegoeneko bizkarra erakusten ari zitzaion, barrurako bidean. Baldartasunik gabe zebilen Fernando, urteak gorabehera. Argala izateak zerikusia izango zuen hartan. Pozik nabaritzen zitzaion. Pozik zirudien Emmak ere. Egongelara

sartu orduko, zapata beltzak zein galtzerdiak erantzi eta elkarren gainean jarri zituen oinak. Deseroso sentitu zen Galder. Gelak anabasaren aldarri egiten zuen. Mila gauza zeuden han-hemen sakabanaturik. Zoruak astebeteko inbentarioa eskatuko zukeen. Fernandok bazuen zer idoro eta zer sailkatu: liburuak paperak kaierak egunkariak. Hormek ere ez zuten zorte hoberik ezagutzen. Hantxe zeuden gizon txiki hark bizi-tzan metatutako grabatuak margoak argazkiak. Gehienak ez ziren liburuen orrialdeak baino handiagoak. Ehun pasa izango ziren eskegita, ageriko ordena bati erreparatu gabe.

Arratsaldea aurrera joan zen ohartu barik. Neguko arratsaldeak ez dira arratsaldeak. Arratsak dira. Bilbon udaberriak ez bide zuen agertzeko asmorik. Caponek lehendik zekien urte osoa zela negu gerra batean. Hala ere eskertzen zuen bere herrian baino beluago iluntzea. Gerretan alde batean arratsaldeak direnak, arratsak dituk beste batean. Aurreko hilabeteak ekarri zituen gomutara. Abenduan Jose Ramon Aiestaranez barrengorri batzuk eraman zituen moilan harrapaturiko katua goxo maneatzeko; urtarrilean

Torrontegi hoteleko emakume aberats batek Elegantes erre zuen gorde-gordeka; otsailean Pakita Mendiluzek ez zuen Erriberako merkatuko bere saltokia zabaldu; martxoan gero eta nekezagoa zen itsasontzi britainiarren txopak Punta Galeatik ikustea. Santoñan harrapatu zuela artritisa esaten zuen Josek. Eta gero artrosia. Galderrek sinetsi egiten zion. Baita benetako bataila gerra amaitutakoan jokatu zela esaten zuenean ere.

- Gerrea amaitu ostean be beharko leukez hamabi hilabete ofizial neguak. Aurrekoek ondusun estimagarriak itxi euskuezan. Mantak eta erre behar izan genduzan. Zorriketan ibili beharrean gengoan. Lehen Mundu Gerrako lubakietan lez, sekula ez dakizu noiz urtengo dozun edo, urten ezkerro, zelan urtengo dozun. Eta, bien birtartean, astiro usteltzen zara.

Galderrek argazki bat bota zuen lurrera, zuri-beltzekoa eta zaharra. Fernandok ez arduratzeko esan zion. Herri bateko etxe deuseztatuek itxura ezin beldurgarriagoa erakusten zuten. Bakan batzuk soilik zeuden tente, baina hutsik barrutik, inork edo ezerk arima ostu balie beza-

la. Toki gehienetan hormak eta zutabeak baka-
rrik gelditzen ziren. Harrizko etxeen kanposan-
tua ematen zuen. Egun eguzkitsu batean atera-
takoia zen argazkia, harriak itzala hedatzen bai-
tzuen kaleetara. Bitxia zen kaleen itxurazko gar-
bitasuna. Enparantzaren erdian iturri bat zegoen
eta alboetan, zauririk gabe, zuhaitz batzuk.
Harri-metak lo zeuden mendi baten begirada-
pean. Isilik zegoen herria. Oso argazki isila zen.
Argazki mutua.

Handik gutxira Emmak amaitutzat eman
zuen bisita. Inori deus esateko betarik eman
gabe, galtzerdiak eta zapatak jantzi eta kalera
abiatu zen. Galderrri tabernakoan baino woman
politagoa iruditu zitzaion. Ordu hartan sakelako
telefonoz eztabaidan ari ziren auzuneko gaz-
teak, zein baino zein. Autoa joana zen. Negua ari
zuen. Londres negua da.

- Ez egin kasurik hire lagun horri. BMW Bob
Marley and the Wailers duk -esplikatu zioten
gerora Galderrri etxekoek.

Waterlooko geltokian inor ez zen arratsal-
deaz mintzo. Hiritik kanpora eroango zituzten

trenen zain zeuden bidaiariak, elkarrekin berbarik trukatu gabe.

- Fernando testu bat idazten ari duk. Badituk urte batzuk lan egiteari utzi ziola, eta orain testu bat idaztea erabaki dik.

Galderrek irri egin zuen bere artean. Hark azaltzen zuen Fernandorenean horrenbeste paper handik eta hemendik egotea. Gelako anabesak ez zion besterik adierazten. Joserekin gogoratu zen.

- Neuk be eskribidu beharko neuke bat, ez dozu pentsetan?

Aitortu ohi zion kartzelaratutakoan hasi zela gerra galtzen, eta ez sartu orduko. Oraindik, gaur egun ere, askotan iruditzen zitzaion galtzen jarraitzen zuela.

- Jakiterik badago zertaz ari den?

Emmak denbora tarte bat hartu zuen erantzun aurretik.

- Bere heriotzaz. Edo Fernandok dioen moduan, idazkia bera duk bere heriotza. Gaixorik zagok, luze gabe hilko duk. Testamentu bat utzi gura dik.

Koadro eta argazki bakoitzari zentzua ematen hasia zen. Edonoren begietara, izuaren galeria zen Fernandoren gela. Zirrargarriak ziren liburu koadro argazki haiek guztiak, espantagarriak. Errazago ulertzen zituen gerra eta hondamendien argazkiak. Irudi apokaliptikoak. Edonon agertzen zen haragirik gabeko gizajendea enbata baten erdian, hamaika fusilatu behin-betiko erorikoaren aurretik, piltzarrez jantzitako umeak ogi-pusketa bategatik borrokan, gizon-emakume lepamoztuak. Usaintzeko modukoa zen. Kiratsa zegoen gela hartan, zokondo bazter apal horma bakoitzean, koadro liburu argazki bakoitzean. Arnasaldi bakoitzean sartzen zen kutsatzaile. Hilgarri. Londresko Dorreko tortura tresnak baino ankerragoak ziren gela hartako apaingarriak.

Hiriko langarrak Emmaren trenaren ipurdia irentsi zuenean sartu zen metrora Galder. Thamesko gezurrezko lainoa barneratua zen lur azpiko tuneletara. Arratsaldea iragana zen ordurako. Fernandoren iragana. Emmaren arratsaldea. Gerretan, batean arratsaldeak direnak arratsak dituk beste batean, esaten zuen Caponek. Londres iluntzea zen. Emma, emakume pretty bat.

Konturatu zen Fernandok nolabaiteko lotura mantentzen zuela jaioterriarekin. Gertatzen ari zenarekin. Ordu hartan oro zen lauso laino lurrun. Oro irudi. Oro mito. Oraina ari zuen. Negua ari zuen. Londres negua duk. Urte osoa duk negu gerra batean. Galderrek uste zuen hil-hurren zegoenak iraganaz bakarrik idatz zezakeela. Ba-goian, aurreko trabestiari erreparatu zion. Tate galerian ikusitako Roy Lichtensteinen zezenekin gomutatu zen, non sei koadrok animalia-aren abstrakzio-prozesua jasotzen zuten.

Foster's

«*Spain. Two suspected members of the Basque separatist group ETA have been killed in a shoot-out with police in central Bilbao*». Hodei beltzek estaltzen dute gaur Londresko zerua. Euria eka-rikiko duen ala ez ikusteko dago. Zure iritziz, eutsi egingo dio. Egia esan, ez dizu ardura. Bart gaueko pintak jirabiraka dabilzkizu buru-gorputzean. Une batez goragalea etorri zaizu. Arrapaladan komunera joan eta zulora beha geratu zara, barrukoak noiz hustuko. Ez da deus ere atera. Zeure aurpegi desitxuratua baino ez duzu ikusi zuloko ur garbian. Agerikoak dira betazpiak. Betzuloak. Ahots lakarra daukazu. Komuna zikindu beharrean zaude, baina nahitaezin batean itozten ari zara. «*La viuda del policía asesinado por el comando Bizkaia este mes, dice que le parece fantástica la muerte de los terroristas*».

Eguerdi aldean jaiki zara ohetik, Steve eta Helenen etxean. Biak Fionaren lagunak dira. Haienean eman duzue gaua. Fiona lo-zorroan dago oraindino. Ez duzu iratzartuko. Helenen eta

telebistako esatariaren hitz ulertezinak iristen dira gelara. Mutilaren arrantzak entzun dituzu jantzi bitartean. Ozenegi iruditu zaizu larunbat goizerako. Azkenean Fiona esnatzea lortuko dute.

Zabuka jaitsi dituzu eskailerak. Sukaldera sartu zara zuzenean, egarria kentzeko asmotan. Itxura ezin penagarriagoa erakusten du. Edalontzi plater garagardo poteak edonon. Hozkailua irekitzean jaki indiarren usaina sartu zaizu urdaileraino. Edateko zer edo zer bilatu eta erdi hustuta dagoen mahats-zuku botila hartu duzu. Helenen jario ulergaitza eta ttika massala-ren usaina nahasten ari zaizkizu. Steveri zerbait aurpegi-ratzen diola ematen du.

Haxixak zure barrenak garbitu ditu egongelako atera azaldu zarenean. Besaulki beltz batean luzatuta daude Steve eta Helenen soin erdi biluztuak. Bi-biak aurrerantz so, begiak kliskatu gabe. Argi dago auzi garrantzitsu batez mintzatzen ari direla telebistan. Esatariaren berbak, ohi bezala, zure aurka bihurritzen dira. Oraingoan, zorionez, ez zaude haien premian. Autoaren itxura diatoniakoak ulertarazi dizu istripu larri baten aurrean

zaudetela. Helen begiratu gabe mintzatu zaizu. Zeuk ere ez diozu begiratu. Erabat ezinezkoa da bizirik irtetea trikitixa horretatik.

Iluntzeak egongelatik atera gabe harrapatu zaituzte. Esnatu deneko hanka egin du Fionak, komunetik pasa barik, erosketak egin behar zituena. Zuk -ketak bakarrik ulertu dituzu, baina sumatu duzu erosketak zirela. Ez dakizu oso ondo zertan den zure harremana Fionarekin. Beharbada esaten duenaren erdia ulertuko bazenu, ez zeundeke gustatuta. Beharbada egunero aurkitu zale zara. Batek daki. Berdin da. Bere lagunek peta berri bat egiteari ekiten dioten bakoitzean autoaren irudia agertzen da. Steve potroetaraino dago. Helen titietaraino dago. Bost axola zaizkio Diana Charles Erregina, baina Steveren jarrerak bere senetik ateratzen du. Gainera, azaltzen gaitza bada ere, triste dago. Zeu bezain triste. Hedabideei ihes egin ostean, haien alde egin du testamentua Dianak, esaten ausartu zara esaldiaren egitura poliki osatu ondoren. Stevek eta Helenek ezer aipatu gabe begiratu dizute. Fionak egin ohi dizkizun keinuak egin dizkizute. Argi dago ez dituztena zure hitzak ulertu.

Etxe ondoko taberna batera jaitsi zara. Luze gabe etorriko dira Helen eta Steve. Baita Fiona ere. Telebista zure txokolate beroa baino beroago dabil Jarcha musika talde pleistozenikoak abestu duen honetan. Aldaketa xume baterako eskatu duzu txokolatea, esne barik. Egunkari espainol bat zabaldu duzu barra gainean. Dianaren heriotza baino berri gehiago bada munduan. «*El Ministerio del Interior ha realizado un vídeo denominado 'El rostro de ETA', cuyo objetivo es dar a conocer en determinados países la verdadera realidad del terrorismo en España*». Ohartu zara zure inguruan *The Guardian* egunkaria dela nagusi. Lasaiago sentitu duzu zeure burua, horren den eskandaluzkoa hil honetako prentsa britainiarra. Espainiako egunkaria ez da tabernako begiluzeen gogokoa. Bere txikerrean, egonean dago barran. Beste hot chocolate bat eskatu duzu. Modan dagoen abestia da pelikula bati esker. Zuri ongi datorkizu berriak erretzeko: «*HB se enfrenta a Jarrai y pide un clima sereno en la calle. Jarrai se defiende argumentando que sus militantes siguen la línea oficial marcada por KAS. Además, opinan que si meten a la cárcel a*

los miembros de la Mesa Nacional, a los que tildan de 'señoritos', 'ya pondrán a otros', tal y como sucedió la primavera pasada».

- Hemen ez zagok HB ezagutzen ez duenik. Izozki marka nagusietako bat duk -harritu egin zaitu tabernariari hain ondo ulertu izanak.

Hurrengoan adierazi beharko diozu zer den KAS.

The truth is rarely pure and never simple

OSCAR WILDE

- Eskerrak San Pedro Atxerreko tontorraren, Gernikako zinemaren eta Picassoren irudi nahasiek salbatu nauten!!!

Galderrek sudurtzuloetara eroan zituen atzamar likatsuak. Irudipena zuen goiz samar etxeratu zela, taberna itxi ondoren. Auskalo. Norbaiten kexu garrasi intziri italieradunek ihes egiten zuten behin eta berriro Donatella pisukidearen gelatik. Galderren gelan, ordea, oro zen jantziei itsatsi garagardo beltz hats lika arrisku herri bateko jaiak. Umetako Gernika azaldu zitzaion begietara. Oroipenak ez ziren asko baina garbi sartzen ziren ametsetara. Atxuriko geltokia aita eta ama Gernika Jai-Alai. Ametsek gura dutena egiten dute irudiekin. Ametsek desitxuratu egiten dituzte oroipenik zehatzenak. Frontoira trenez joaten ziren gehienetan. Han bermeotarrei en-

tzuten zieten berbetan. Aitak kontatuta zekien bermeotarrak zirela, eta pentsatzen zuen hura ez zela bere trena.

Ez zuen deus berezirik nabaritu Fernandoren galeria apokaliptikotik erori zenean; argazkia non egina zegoen galdetzera eramango zuen detaile ttipienik; herria salatuko zuen aurpegi janzkera paisaiarik. Eta hala ere, Waterlooko gelotkian trenera sartu zenean, gogora etorri zitzaion lehendik ikusita zeukala. Fernandorenean ez zen ohartu ere egin hainbeste argazki eta irudiren artean. Baina hura Gernika zen.

- Gernikako kazetarien usainean Londreseraturutako ikerlari itsua. Ez duk makala. Hi haiz, hi, gerra kontuetan aditua! -trufa egin zion Emmak barre-zantzoka.

Barre egin zuen Galderrek ere. Onartu beharra zeukan ez zitzaiola Gernika iruditu. Argazki haren berdina edo antzekoren bat hamaika aldiz ikusia zen. Beste toki batean topatuz gero, berehala asmatuko zukeen. Baina denak berdinak agertu zitzaizkion Fernandoren etxean, denak tamaina berekoak denak zuri-beltzak denak itogarriak.

- Fernando argazkizale amorratua duk.

Hark nolako aurpegia jarri zuen galdetzeko-tan egon zen Galder. Ez zuen egin baina. Umilia-zio nahiko eramangarriak ere umiliazioak ziren, azken batean.

- Ni ez naun aditua ezertan. Kanpoko kazeta-rien eskuhartzearekin bakarrik nagon arduratu-ta. Eta orain arduratzen nauen bakarra Capon dun.

- Gernikakoa zigorra izan zan; Durangokoa, barriz, gaztigua.

Bou Bizkaiako kapitainarekin berbetan ari zen Jose martxo azkeneko sarraskia jazo zenean. Durangokoa. Hurrengo egunetan eutsi egin zie-ten bonbaketei. Sekula ikusi bako gerra modua zen hura. Alemaniako hegazkinen joan-etorriek aste osoan iraun zuten. Baita Caponenak ere. Durango elizgabetua izan zen Kristoren izenean. Mojak hilik, Kristoren izenean. Animaliak zeharo barren-husturik, Kristoren izenean. Bazkalostean bonba batek baserri bat birrindu zuen. Arineke-tan hurbildu ziren Polizia Motorizatuko kapitain baten baimenaz. Behi bi, bost oilo eta zerrama baten pusketek lohitzten zuten ukuilua. Horixe

bera adierazi zien baserritarrak, abereak ez zirela ez ezeren ez inoren izenean hiltzen. Bitartean, Radio Sevillatik Queipo de Llano jeneralak inor baino junkerrago gura zuen agertu, inor baino heinkelago: «*Nuestros aviones bombardearon objetivos militares de Durango, y los comunistas y socialistas encerraron a los curas y monjas en las iglesias, asesinándolos a balazos sin piedad y quemando después las iglesias*». Nazionalisten zentsoreak berak, Arbexek, kontatu zion Caponi. Estimatu egiten zuen. Susmagarriei irratiak kendu aldekoa zen Arbex. Beharko. Baina Bilbo eroritakoan matxinatuekin lerrotu zen Arbex. Handik aurrera Caponek ez zuen ostera ere ikusi, eta hala eta guztiz estimatzen jarraitu zuen.

- Guk Radio Bilbao geunkan. Frontean ofizialek entzuten eben. Etsaiaren guzurrek nahaste handiak sortu eikiezan geure artean. Errekisau beharra egoan, Durangoko bonbardaketea erakusgarri. Bizi izan ez dauenak ezin dau ulertu. Neuri be bajat nahikoa gatxa.

- Eta Arbexen traizioa?

- Arbex? Zera esango deutsut: behin edo behin ikusi neban ingeleskume ha. Ez genduan ezelango susmorik, ezpabere jo eta bertan akabauko genduan.

Hausnar egin zuen Galderrek. Beharbada Fernandori ere zaila zitzaion endelegatzen. Batek daki nola eta noiz jakin zuen gertatutakoren berri. Emmak aitortu zion egongelakoak baino askoz argazki gehiago zituela albumetan kaxoietan lurrean sakabanaturik. Baina ez zen argazkilaria. Argazkiak egin baino, argazkiak bildu nahiago zuen.

Ebatzi zuen Fernandorenean egindako hanka-sartze barkaezinaz baliatu beharra zegoe-la. Caponen heriotzari buruzko gogoeta bat irakurria zion Emmari, historialari batek egina. Gerra amaitzear zegoen. Alexander Marriot, haren lankidea egunkarian, Ingalaterran zen ordurako. Capon Madrila itzuli zen, ustez egunkariak aginduta. Ezinbestekoa zen han erreportari bat edukitzea eta hura omen zen egokiena. Marriot, Madrildik alde egin bezain pronto, eremu nazionalera mugatu zen; Caponek, aldiz, sarturten egin zuen, baina Gernikakoaz idatzitakoek

nazionalen etsai bihurtu zuten. Capon zen ego-
kiena, beraz, Espainia errepublikanora buelta-
tzeko. Bestalde, bazen esaten zuenik Gobernu
britainiarrak bidali zuela Capon, lehen Abisiniara
bidali zuen moduan. Batek jakin. Bide bazter ba-
tean topatu zuten haren autoa, erreta, gerra
amaitu eta hiru astera. Frantziara omen zihoan.

- Horretan ezin diat lagundu. Hik adina za-
kiat.

Emmak traje beltz bat zeroan soinean. Eder
ematen zion bisaiari. Noiz edo noiz bien botek
elkar topatzen zuten tabernazuloko mahai baten
azpian. Galderrek ostiko txikiak sumatzen zi-
tuen, asmorik gabeko kolpeak. Haren oinak iru-
dikitzen zituen orduan, lehenengoz galtzerdiak
jantzita eta gero galtzerdirik gabe. Mahaian han-
kalatraba eserita. Tabernan barna. Komune-
rantz. Kanpoan, euritako beroki eskularru berdi-
nak zebiltzan helmuga zehatzik ezarri gabe.
Emmak behin eta berriro erabiltzen zuen ahotan
Fernandorenean gertatutakoa. Desilusio apur
bat hartu zuela aitortu zion, seguru baitzegoen
goiz edo berandu ohartuko zela. Galderrek bere
baitan galdetu zuen zer esan nahi ote zuen desi-

lusioa hartu izanak, ona ala txarra zen. Desilusio berbak kutsu txarra zeukan baina ez zen, behintzat, etsia edo etsi gaiztoa bezain kutsu txarrekoa. Nolanahi ere, hark abantaila batzuk ekar ziezazkiokeen, ezagutu aurretiko balizko iruditik urrun geratu baitzen haren begien aurrean. Auskalo.

Emmak eta Fernandok oso harreman berezi bezain estua zeukaten elkarren artean, begi-bistakoa zen. Aspaldiko adiskideak balira bezala hitz egiten zuten. Galderren irudiko sarriago berba egin beharko zuten haren gainean. Poliki. Lehenik eta behin Caponekikoak argitu behar zituena. Gero harekikoak. Fernando ez ei zen berba egin zale. Argazkiak bildu zale zen. Argazkiak ziren Fernandoren berbak keinuak lengoiaia. Argazkiak... eta idazten ari zen testua. Testamentua. Hartaz jakiteko gogo bizia zeukan.

Sei garagardo botila huts zeuden mahai gainean. Bere aitonaren heriotzaz ezer gutxi ikas zitekeela adierazi zion Emmak. Ea bereziki interesaturik zegoen horretaz. Galderrek ezetz erranzion. Capon Gernikara sartu zen eta horrexegatik bakarrik izan zitekeen arduratzeko modukoa.

Emmak gogoeta egin zuen. Txolindurik zegoela zirudien. Ea ezagutzen zuen Terence. Galderrek baiezko keinua egin zion. Baita Madner eta Hume ere. Hiru egun geroago sartu zirenekin ere interesaturik zegoen. Ea ezagutzen zituen Fabrizio, Sanzetti eta Miranda. Bai, hirurak. Eta beste kazetari atzerritar batzuk ere bai. Emmak zigarro bat isiotu zuen isilean. Buru arin zegoen. Kanpoan oro zen autobus metro taxi beltz. Oro inolako inongo inoizko.

Guinness

Hattongoak Perivalgoak Twickenhamgoak... hiriko tabernak egarrtuen gozagarri. Zuk zeuk ez deritzozu gaizki, baina aspergarri samarra da, ezta? Hiriak anitzagoa behar du, ezinbestez. Goizeko egunkariak triku baten antzera kiribildu zaizkizu jakaren poltsikoan. Etxerantz zoaz oinez, geroago irakurriko dituzu. Gogoan duzu bi egun lehenagokoa: «*Boda Real en Barcelona: la ciudad revive el ambiente festivo de los Juegos*». Badira hilabete batzuk Barnako akuariuma bisitatu nahi duzula. Londresen badago beste bat, metroko iragarkietan ikusi duzu. Hobeia ei da Brightongoa eta hara joango zara Bartzelonakora baino lehen. Bartzelonakoa gainez egina dago ezkontzarekin. «*En la víspera de su boda, Cataluña y Barcelona rindieron homenaje a los novios*».

Loak hartu zaitu etxera iritsitakoan. Gutxi irau du. Fionak esnatu egin zaitu: Begira ezak honako hau. Begi erneak ditu, larri begiratzen dizute. Eguerdi honetan zuri xuxurlatutako lehen

hitz karratuak dira. Urriak eta berobakoak izaten dira larunbatetako bere egunonak. Egunez odola poliki-poliki burmuinera punpatu eta gaua hel-tzean braust zabaltzen zaio gorputz osora. Gaur, ordea, inoiz baino arinago igo zaio. Fionarengana hurbildu zara, eskuineko zutabeko albiste txikia hobeto irakurtzeko asmotan. «*Policeman dies foiling bomb attack by ETA guerrillas on royal opening of Bilbao museum*». Juan Carlos I erregeak Guggenheim museoa bisitatzeko asmoari eutsiko omen dio. Musu bat eman diozu ezpainenetan. Fionak zain dagoenaren begiratu urduriaz erantzun du. Bistan da ez dagoela une honetan zure musuekin arduraturik. ETA guerrillas eta King Juan Carlosen premia handiagoa bide da haiena baino. Zu iratzartzeko adinako garrantzia dauka gutxienez. Bi ordu lehenago erositako egunkari ingelesak dauka errua.

«*Se confirma la certeza que todos tenemos: ETA es HB*». Fionak «*larri zauriturik*» leitzen duen tokian, zuk «*zaharrak berri*» irakurtzen duzu. Atentatuaren gorria ikus dezakezu bere masailetan, albisteak norainoko bidea egin duen. Masail zurixkak ditu, ingeles tipikoen an-

tzekoak. Hire Gernika eta nirea ez ditun berdinak, murmurikatu diozu. Burua jaso du egunkaririk: Zer esan gura duk? Picasso...? Fionaren ganbaran *Guernica* ederra dago. Policeman diote kazeta ingelesean. Juan Carlos ETA guerrillas museum policeman. Nola hain egunkari luze eta zabal batek ekar dezake hain informazio eskasa? Aukeran erdia kenduko zenuke. *The Guardian*-en orritzarrei buelta erdia eman eta irakurtzeari ekin dio ostera ere Fionak. Larrugorri dago ohe gainean, beautiful. Zuk harri eta belarri behatzen diozu. Egunkari ingelesari begiratzen diozu aho eta birao. Fionak ez daki Guernica eta Gernikaren artean bereizten. Eta ez da harrigarria. Ba al dakizu zuk nola ahoskatzen diren Hutton, Perival eta Twickenham? Ulertu ere nekez ulertzen diozu.

Arratsaldean Fionaren pisura etorri dira Steve eta Helen. Londresko hamaika pizza-egilek izan ezik, inork ez du dudatan jartzen Ingaltarrak Italia birrinduko duela. Espainiak, aldiz, malkarrik gabeko bidea dauka. «*España-Islas Feroe. Con José María García. El sábado 11. A partir de las 7 de la tarde. En Gijón. ¡Ya estamos*

en París!». Fionak gorroto dio futbolari, aukeran nahiago ditu petak eta -ketak. Bere iritziz errazago dauka Espainiak. Faroetarrek larrutik ordainduko dute beren atrebentzia. Larrutik ordainduko dute irlandaratuek. Larrutik ordainduko dute euskaldunek. «*Vecinos de Rascafría indignados por la presencia de la mesa de HB en el pueblo*». Lancaster Gate-ko lehen orrialde batek jakinarazi dizu burukideak juzkatuko dituztela. Badirudi epaiketak luzaro joko duela. Zu zeu ez zaude sosak irakurtzen xahutzeko prest. Kanpin-dendak jarri behar dituztela Madrilgo zubi baten azpian. Zer leitu berri duzun azalduko zenieke ingelesei, baina merezi ez duelakoan zaude. Hobe larregi ez gogaitzea. Ahapean gorde duzu. Italia txiki-txiki egitear ei dago Ingalaterra.

Bigarren zatian, Helen eta Fiona bezain asperturik zaude. Harritu zaitu pixka bat Bilboko horrenbeste argazki Londresko prentsan ikus-teak. Afrikako herri bateko edozein auzunek aukera gehiago du, bai horixe, arreta handiagoa. Baina hor dago Bilbao, garbi eta distiratsu zero urdinaren pean, titaniozkoa. «*Sus Majestades los Reyes llegaron a las ocho de la tarde a la expla-*

nada del Guggenheim, entre el calor del pueblo vasco, que se volcó con su visita». Inork «*Guernica*» eskatu die bolada batez, museoari eta Bilbori etekin handiak ekarriko dizkielakoan. Bilbo titanizatuta dago goitik behera, tiranizatuta.

*Las noticias pretenden traer novedad
Pero siempre son las mismas
Guerras y desastres
Y esa crisis que nos hacen creer pasará
Y que nunca dobla la esquina.*

ENEKO HERRAN

Neuk ere baditinat argazkiak, azaldu zion Galderrek Emmari. Bouak, Punta Galeako bateria bat, Galdames baporea, ertzañak Durangoko Santa Susana elizako hondarren aurrean, Donostiako Hotel Continental eta Jaizkibelgo baserri bat errauts eginik. Beste bik Gernikara zeramaten: batean, Ocho de Enero kalea eta San Juan elizaren aldamera; bestean, Union ibilbideko ti-loak Adolfo de Urioste birrinduaren ondoan. Bilboko Euskalduna frontoia ere bazen, erabat kiskalita.

Ben Capon Bilboko Torrontegi hotelean zegoen. Arratsaldean Kursaal Novedades kabaretera joan zen Luisa Porcel eta Madame Lil ikusteko

asmoz. Terencek aurkeztu zion Lil, gustuko ei zituen kanpoko kazetariak. Egia zen. Hoteleratu zirenerako UGT-8ko batzuk eta Telesforo Monzon Gobernazio sailburuaren gizonak baino ez zebiltzan kaleetan. Las Columnas kafetegian geratu zen Terence. Gonzales Byass gustukoago zuen Peinado baino. Egoera gero eta larriagoa zen. Sarri ez zen garagardorik, eta kafea esne eta azukrerik gabe hartzera behartzen zituzten. Hura guztia gutxi balitz, tabernariak Salsamendi batailoia zuten osaturik.

Madame Lil nagusiagoa zen, agian hamabost urte, artean gaztaroko zantzu nabarmenak gordetzen zituen baina. Haren gorpuzkerak neska nerabe batena ematen zuen, ipurdia eta bularrak bere tokian. Izter sendoak nabaritzen zitzaizkion gonaren azpian. Aurpegian bakarrik zen bistakoa denboraren zigor errukigabea. Begipe ubelak zeuzkan gaueko ibileren salatari. Eta makillajeak nekez ezkuta zitzakeen zimurrak.

Jantziak emeki-emeki eranzten hasi zen. Capon ohean zetzan, pixka bat mozkortuta, baina andreari begirik kendu gabe. Kabaretekoa baino ikuskizun gozagarriagoa zeritzon. Kabare-

tekoa negargarria iruditu zitzaion, Terenceri ez bezala. Ez zituen tabernazuloak eta kabaretak maite, are gutxiago Bilbokoak. Ba al daukak pre-serbatiborik?, itaundu zion Terenceri kafetegian. Lagunak zakurraren salara bidali zuen. Espainiako koñak higuigarri bat hartzera behartu gura zuen. Errua berak zeukan, jakina. Berak eta ez beste inork. Tori, La Discreta. Madrildik ekarri nitian. Abertzaleek jakingo balute...

Madame Lil ez zen osorik erantzi. Takoi luze-ko zapata gorriak eta titizorroa soinean laga eta mozturro beltz bat jantzi zuen begietan. Emakume helduen xarma zeukan eta heldutasun hark denborak ostu nahi zion edertasuna itzultzen zion. Kopa bat xanpain eskuetan hartuta, oso pauso ttipiez Caponengana hurreratzen hasi zen, haztamuka, ikusiko ez balu bezala. Kazetaria ahuspez jarrita zegoen, begi irritsuak haren ganantz. Ez zekien zertan zebilen. Bazirudien olgetarako gogoia zuela. Astiro hurbiltzen zelarik, Caponek alkoholak epeldutako odolaren beroa sumatu zuen zakilerako bidean. Ez zekien oso ongi zertan zebilen eta jakiteko desira bizia zuen.

Soa kazetariarengandik aldendu gabe, Madame Lilek hurrupa bat eman zion kopari. Edari apartsua gorputz zurixkan behera labaindu zitzaion. Kopa askatu gabe, haren aurre-aurrean jarri zen zutunik, hanka bat ohe gainean. Aluaren hatsa kazetariaren sudurtzuloetara zabaldu zen. Gora begiratu zuen, baimen eske.

- Ben, etorri agudo! -bonba batek sabaia txikitu balu bezalaxe entzun zen Madnerrek atean emandako danbada-. Sute ikaragarri bat omen zagok Gernikan!

Beste kazetari guztiak afaltzen ari ziren. Torrontegi hotela kanpoko erreportarien bilgunea zen eta asko, gainera, bertan bizi ziren. Ondoko mahaietan betiko bezeroak zeuden, aspaldian han aterpetutako faxista bizkaitar gipuzkoar asturiar santandertarrak. Berba larregi trukatu gabe afaltzen ari ziren. Hoteleko jantokian ozen mintzatzen ziren bakarrak kazetariak baitziren. Ez zuen luze hartuko Bilbo erori aurretik. Hori bazekiten Caponek Humek Madnerrek. Bilboko faxistak ere baziren horren jakitun, eta beharbada horregatik ez zuten deus ere esaten. Astelehen

hartako isiltasuna Euzkadiko Jaurlearitzako funtzionario batek apurtu zuen.

- Sutan dago Gernika!

Lasai zedila erregutu zioten, ez zuten deus ulertzen.

- Oraindik ez dakigu zer jazo dan. Faxistek bonbardau ei dabe.

- Hara! Lehen Durango eta orain Gernika! Zenbat lagun hil dira?

- Ez dakit, hobe dozue zeuok ikusi. Ez dozue trabarik eukiko ailegateko. Bidea ederto baten ei dago eta etsaiak kilometro askotara dagoz oraindik.

Berriak aitzurra kendu zion Caponi. Maria Gorozika zen Madame Lil. Argi utzi zien bera ere joango zela Gernikara. Madner eta Caponek elkarri behatu zioten. Madnerrek Caponen zalantza fusilatu gura zuen. Aterako bidean, ordea, Madame Lilek fusilatu zuen. Errazagoa zitekeen Madnerrekin berba egitea. Lil duk, Madner, Gorozika.

- Junker 52 eta Heinkel 111 bonbaketariak, eta Heinkel 51 hegazkin arinak ikusi dituzte Gernika inguruan. Abioi alemaniarrek bonbardatu dutela hiria diote herritarrek.

- Hori naziak salatzea da -erantzun zioten Caponi Londrestik.

Egunkariak, azken batean, ez zuen begi txarrez ikusten gorrien akabatzea. Jarrera hura mingarria egiten zitzaion Caponi, egunean baino egunean lazgarriagoa. Franco ere ez zuten begi onez ikusten, baina faxismoa bezain arriskutsua zen komunismoa.

Emmak adi entzuten zuen.

- Gure aitonak bazekian ez zela horren sinplea. Abisinian ikasi zian.

Galderrek baiezko keinua egin zuen.

- Gernikako bonbardaketa Blitz-a dun, Londresko bonbardaketa amaigabea.

Atoan ulertu zion, bonbardaketez ari zirenetan hizkuntza berean mintzo baitziren. Maiz berbarik ere ez zuten zertan ezpainetaratu.

Ordu hartan kalean dena zen maitemina herrimina udamina jazz. Saxo-jolea John Coltranen musika imitatu nahian zebilen. Emma sarri joaten bide zen hura entzutera, horregatik hartaratu ziren. Musikak berak baino gehiago, giroak erakartzen zuen. Ez zen gauza saxo tenor bat eta saxo altu baten artean bereizteko, baina ez

zuen uste bereizi beharra zegoenik. Galder bat zetorren horrekin. Alboratu nahi zituen Bonbardaketa eta bombardaketak une batez, eguneroko bizitzaren -keta guztiak, baina ez zekien zelan. Caponen ganean edo Gernikaren ganean edo Fernandoren beraren ganean ari zirenean lasaiago sentitzen zuen bere burua.

- Polizia bat hil ditek hire herrian -esan zion Karl adiskide alemaniarrek Galderri.

- Polizia bat hil ditek Euskadin -itzuli zion Emmak.

- Bazakinat.

Emmaren ahotsa Karlena baino hurbilago sentitu zuen Galderrek. Zurruna zen Karlen ahotsa. Gernikaren berri zeukan batek argi eduki behar zuen zer zen polizia bat hiltzea. Zer zen policeman bat hiltzea. Galdetzeko gogoia igarri zion, galdetu gura, jakingura. Gernikaren berri zeukan batek eskubidea zuen eztabaidatzeko hilketaren arrazoiez. Ez zen ausartu hala eta guztiz. Zentzugabea zela baizik ez zion adierazi. Horrelakoa zela, arrazoiak arrazoi. Karl horretara ere ez zen heldu. Ez zuen heldu nahi. Albisteak irakurri egiten zituen, kontatu egiten zituen. Ez

zekien zentzugabea zenetz, ez baitzekien arrazoirik zegoen.

- Ba ote da arrazoirik gizaseme bat garbitzeko? -itaundu zuen Emmak asmo gaiztorik gabe.

Karlek ez zuen balizko arrazoiez entzun gura. Ba omen zagok arrazoi bat gauza bat egiteko eta ba omen zagok beste bat gauza bera ez egiteko. Karlek uste zuen ez zeukala eskubiderik euskaldunen mundura sartzeko. Horrela bota zion, pasiorik gabe.

- Ba al da arrazoirik hau egiteko? -galdetu zion Maria Gorozikak Caponi.

Madame Lil San Francisco kalean gora galdu zen; Maria, berriz, Gernikan zegoen beste kazetari guztiekin batera. Goizaldeko ordu bietan suaren bazka zen herria. Iritsi aurretik, Urdaibai-ko zeruaren gorriak eta Bilborantz ihesean zihozazen gizon-emakume aldrek zentzuz bete zituzten Euzkadiko Jaurlaritzako informatzailearen hitz alarmagarriak. Aitaren egin zuen lau bider. Humeren begi zoliek erreparatu egin zioten. Ea zer uste zuten, fededuna zen. Horregatik hasia zen otoitzean. Infernua ezin zitekeen oso bestelakoa izan. Caponek gerra-hegazkinak zituen go-

goan. Krask egin balute arto-sailetan, gaitz erdi. Non egongo ote ziren. Arabatik edo Burgostik etorri behar izan zuten. Batetik edo bestetik. Madnerrek arrapostu egin zion, berba egin behar zutela lehenbailehen bizirik zeudenekin. Haiek argituko zieten nongoak ziren hegazkinak eta nondik etorriak. Kazetariaren ustezko hoztasunak asaldatu egin zuen Maria Gorozika. Capon ez zettorren bat uste harekin, zer gura zuen egitea?

Emmak elkarren aurrean jarri zituen erantzitako eskularru beltzak. Tabernan free-jazz jotzen ari ziren. Jazz mota hura burubakoa ez ote zen galdetu zion Galderrek. Emmak, ahoa zabaldu aurretik, korapilo antzeko bat egin zuen eskularruekin. Anarkiko bezain harmoniko iritzi zion gero, Fernandori galdetzeko, hura jantzia baitzen kontu haietan. Eskularruen moduan, saxojoleak ere korapilo baten itxura hartu zuen. Emmak erantsi zuen, Fernandok ere absurdotzat joko zuela poliziaren hilketa. Haren etxean ikusitako argazkia ekarri zuen gogora Galderrek. Robert Caparen argazki bat bezain adierazgarri eta salatarioa zen. Estandarra. Bonbardaketa apirilaren hogeita seian izan zen. Frecce neri italiarrak

eta Nafarroako IV. Brigadako erreketek hogeita bederatzia eguerdi aldean sartu ziren herrira. Fernandoren argazkian ez zegoen suaren arrastorik inon. Eta sua ez zen berehalakoan itzali. Capon lekuko. Maria Gorozika lekuko. Testamentu bat idaztea zen absurdoa, Galderren ustez.

Adolfo Dominguez Romeo Gigli Gianni Versace. Bordeaux Château Figeac Château Palmer. Neguak berdinak dira Londresen. Fernandok gogorapen argiak ei zituen Gerra Zibileko egun haietaz. Hogeita bat urte bide zituen garai hartan, Josek beste gutxi gorabehera. Saseta batailoiko aberkideek jakinarazi zioten bizkaitarrari Gernika suak harturik zegoela. Bilbon zen baina ez Torrontegiko gela batean. Egun batzuk lehenago, W. Roberts *Seven Seas Spray* kargaontziaren kapitaina matxinatuen blokeoa hautsi eta Bilboko portura sartu zen. Ia lau mila tona gatz ardo olio urdaiazpiko irin ezti indaba garbantzu. Hurrengo egunean Ingalaterrako beste hiru itsasontzi sartu ziren. Pikaza Polizia Motorizatuaren buruak agindu zion Joseri ardura zedila itsasontzien zaintza antolatzeaz. Gero eta errefuxiatu gehiago zegoen Bilbon, eta ez bakarrik Gipuzkoakoak

eta Arabakoak. Bizkaiko herriak jausi ahala Bilboko kaleak iheslari gosetuez betetzen ziren. Larrinagako kartzela eta Angeles Custodios komentuko hilketetan bezala, goseak eta ernegazioak edozein unetan sor zezakeen ezbeharren bat.

Pikaza Gernikara abiatu zen bere Riley dotorean. Faxistek jakingo dabe zer egin Pikazaren autoagaz, komentatu zuen Josek, ez jaku autorik geratuko Gernika galdutakoan. Kazetariei argi utzi zieten sartzeko debekua. Bilbotik iritsiriko suhiltzaileak ezinean zebiltzan. Hiru kamioi zenbatu zituzten. Haizea bat eginda zegoen suarekin. Herritar batzuek jauntxokeriaren aurrean makurtzea egotzi zieten komandanteei, jauretxeez baino ez zirela arduratzen. Jauretxeak faxistenak zirela. Ez, haiek ez ziren faxistenak. Bai, baziren. Abertzaleekin lerrokatutako faxistak ziren, jakin bazekiten herrian Manuel Gorostizak abertzaleak salduko zituela Bilbo jausi ondoren. Bai baitzekiten Bilbo luze gabe eroriko zela. Denek zekiten hori. Ez al zuen Gorostizak berak esan onena zela esku ez hartzea? Nafarren eta arabarren askatasuna gustatuko zitzaiola aipa-

tua zuen batek baino gehiagok. Galderrek hausnar egin zuen. Fernandoren argazkian ez zen Gorostizarena agertzen. Otu zitzaion egongelako argazki koadro erretratuek purgatorio antzeko bat osatzen zutela.

- Heriotza duk nire bizitzatik interesatzen zaidan bakarra...

- Zer murmurikatu duk, Ben? -itaundu zuen Maria Gorozikak.

Caponek lehenago entzundako berbok ekarri zituen gomutara. Ez zegoen batere ados beraiekin. Bihurriegi zeritzen. Batetik, ez zekien zehazki heriotza bizitzari lotua zegoen. Eztabaidagarria zen behintzat. Edo lotua, bai, egon zitekeen, heriotzak segatzen baitzuen bizitza edo, bestela esateko, bizitza heriotzan amaitzen baitzen, baina ez zuen uste heriotza bizitzaren parte zenik. Ez zegoen seguru. Eta hala balitz ere, bazeuden beste gauza erakargarriago batzuk. Hain zuzen ere, bizitzatik interesa ez zekiokien bakarra heriotza zen. Heriotzak ez zekarkion deus bizitzari.

- Ez dun ezer...

Kanpoaldeko sarraskia miatzen hasi ziren lehenengo eta behin. Andra Mari elizaren parean neskato bat hilik zetzan. Bazirudien Euzkadiko Jaurlearitzako funtzionarioaren informazioa iturri onekoa zela. Bonbardaketariek herria txikitu ondoren, ihesari eman ziotenak metrailatzeari ekin zioten ehiza-hegazkinek. Bazeuden beste hiru gorpu ospitale bihurtutako Santa Clara komentutik hurbil. Familia berekoak zitezkeen, aita ama seme alaba. Maria Gorozikak ezin zuen ulertu kazetarien ageriko ezaxola. Gorpu bakoitza urdailan bihurritzen zitzaion nazka emateraino. Caponek, ostera, ezin zuen konprenitu nola heriotza zitekeen bizitzatik interesgarriena. Ez zuten sakabanaturiko hildakoek ikaratzen, Abisiniako egunetatik ondo ohituta baitzegoen hilak ikustera. Heriotzak baino gehiago, Heriok ikaratzen zuen. Bertan zegoen, bere aurrean, sugarretan ikusgarri, txinpartetan bizi, haizean jostari, kean itogarri, usainean errukibako. Bentzutuezina. Eta hala ere, barruko mintzoak erraten zion bentzutu beharra zegoela.

Emmaren baitan oro zen beltz berba negu. Aretoan oro free-jazz. Azaldu zion Galderrri Fer-

nando Madrilen zebilela garai hartan. Callaon gora zihoan inorekin hitz egin gabe, Madrilen ez baitzen inorekin hitz egin behar. Gernika bonbardatu zutela informatu zuen Union Radioko esata-riak. Fernandok, egon barik, bazekien zer zen Gernika. Madrilek badauzka bere Jarama bere Guadalajara bere Coruñako errepidea. Bizkaiak badauka bere Gernika. Madrilek, ordea, ez zuen Gernika, edo ez hark zuen modu bertsuan behinik behin. Fernandok ez zuen itolarririk sumatu. Klean Antoine de Saint-Exupéry idazle frantse-
sa ezagutu uste izan zuen. Emmak aipatu zion, Fernandok esaten zuela argazkiek ez direna agertu gura dutela beti.

- Pentsa ezak irratian entzundakotik egun buruan daukana osatu arte, zenbat Gernika pa-satu ote diren.

Guernica. Gernica. Guernika. Gernika.

- Lichtensteinen zezenek ezin dituen prozesua zehatzago azaldu.

Beamish Red

Zure harremana, etxeko arazoekin, hutsaren hurrengo bihurtzen hasi da apurka-apurka. Berriak ez dira zahar geratzen, zaharra baita berri Londresko kazeta espainoletan. Albisteeak, zeuk bilatu baino gehiago, ezustean harrapatzen zaituzte egunkari ingelesak zabaldu edo teletestua pizten duzun bakoitzean. Horri ezin diozu ihes egin. Baina dagoeneko ez zara hango informazioa lortzen ahalegintzen. Espainiako egunkari nagusien lehen orrialdeak ere ez dituzu irakurtzen. Kontzertuen gida eta txokolateak erostera bakarrik sartzen zara pakien dendetara. Zure gerra bertan behera geratu da haiekin. Jakingurarik ezak su-etena iragarri du. Dagoeneko ez dituzu haien begiak bizkarrean sumatzen.

Fionaren ahotsa entzun duzu gelatik. Badirudi alai datorrela. Etzanda zauden besaulkira hurbildu da, saltoka dantzan jolasean. Aurpegira zabaldu ditu esku hotzak eta, ondoren, alkandoraren azpian sartzen saiatu da. Geldi egoteko eskatu diozu, osterantzean lurrera botako duzu. Ez

dizu jaramonik egin. Edo ez du ulertu. Hori da betiko zalantza. Erantzunik ez badago, susmo txarrak hartzen dizkiozu.

Borrokatzeari utzi gabe, geldirik egon dadila erregutu diozu bigarrenez. Zaila da jaramon egi-tea zuk zeuk ez baduzu zeure berbetan sinesten. Baina horrek bost axola zuri, ulertu dizunetz soilik arduratzen zaitu. Eta ulertu egin du. Azken asteotan bien arteko komunikazioak aurrerapauso nabarmenak eman ditu. Hobeto aditzen diozue elkarri, nahiz eta batzuetan modurik egon ez. Hizkuntza bere bidea egiten ari da astiro-astiro. Nahi baino astiroago egiten ari da, baina utzi behar zaio. Bestalde, ematen du harekiko komunikazio hobeak beste batzuen tokia hartu duela.

Ez dakizu oso ondo herrian zer gertatzen ari den. Gurasoei telefonoz hots egiten diezun urrietan ez duzu ezer galdetu gura. Etxean gerta daitkeenarekin arduratuta bazaude ere, oporretan sentitzen zara. Egoera berriari lehor-te informati-boa esatea erabaki duzu. Lehor-te informati-boa baraualdia da. Uztaila ezkerro pizza hanburgesa kebab larregi irentsi duzulakoan zaude. Betekadarik hartu gabe irakurtzen dituzu Londresko

egunkarietako berriak. Ingelesak horretarako daude eta. Agudo ikasi duzu oso arau garrantzitsu bat: no news, good news.

Futbola da zure bizio bakarra. Taberna espainiar batera biltzen zara larunbatetan, zazpi eta erdietan hutsik egin gabe, futbol-gose saldoen artean galduta. Hormetako kapelek erakusten dute guztiek merezi duzuela harrera ona. Hasieratik, metro erdi diametroko txapela beltza eta txapelokerren trikornioa elkarren ondoan ikusteak piztu du zure arreta. Galziarrak dira jabeak, Deportivoren zaleak. Haizea fir-fir dabil hango kostaldetik aspaldi honetan. Norgehiagoken atsedendian Nazioarteko Kanalak gaueko albistegia ematen du. Zuk aldageletara sartzeko aprobetxatzen duzu orduan.

- Zertan aritzen haiz?

- Barra gaineko egunkari ingelesa irakurtzen dinat kaka-lekuan.

Fionak ez dizu inoiz lagundu gura. Beharbada hormetan onddo-kapelurik ez dagoelako. Egunkari ingelesaren iritzi artikulu faltak eta agentzien sinadurek burukomin bat baino gehiago aurrezten dizute. Batzuetan ez zara idatzien tonua-

rekin ados egoten, partzial iruditzen baitzaizkizu, baina kazetari edo itzultzaileen jakinezari egotzi ohi diozu. Baita barkatu ere. Berriak kask-kask deitzen du, sekula ez kolpatu.

Lau astez, gutxienez, eutsi diozu informazioa ingeles hutsean jasotzeari. Denboraldi horretan Jimi Hendrixen azalean sentitu zara, beti arinetan, zer den ondoegi ez dakizun zer edo zeren bila. Lehorte informatiboan ederto batean bizi izan zara, harik eta gaur goizean *The Guardian* egunkarian ezagunak egin zaizkizun laburdura batzuekin topo egin duzun arte: «*ETA politicians to get jail term*». Albistea *Reuters* berri-agentziak sinatzen du. Fiona gainetik kendu duzu berehala. Hura besteren tokia hartzen ari dela bururatu zaizu berriz ere. Eta baliteke inoren tokia hartzea zuk zeuk horixe gura duzulako, errazagoa delakoan. Zaila da galdera guztiei erantzutea. Ez dakizu benetan zerikusirik duzun berarekin, zeure erabakiak hartzen dituzun, alferrikako harremana ez ote den. Sofaulkian eserita zaude-tela, lehortean zaudenetik lehenengo aldiz, zaborraz elikatzen jarraitzen duzulako zalantzak asaldatu zaitu. Zaborjale amorratua zarela pen-

tsatzeak artegatu egin zaitu. Zer pentsatu behar dute Londresko irakurketakideek? ETaren politikoa barrura. Albisteak ez du aukera handirik ematen. Baina hura berri laburren atalean ipini izanak ekarri dizu amorratorik handiena. Ez al du toki hoberik merezi? Tokian-tokian txakurrak ortozik. Brastakoan, baraualdi informatibotik ateratzeko premia larria nabaritu duzu.

- Goazeman, Fiona. Kazeta-gaindosi bat behar dinat!

- You wanna be a junkie?

- Bai, horixe!

Gauean, zeldak hertsu dizkigutenean irratia izeki dut, Radio Nacional de España, lehen katean. Ustekabean, Benito Lertxundiren musikarekin, Euskal Herriko biolentziari buruzko programa bat da.

Damuetariko batekin ari dira solasean:

- ¿Qué es lo primero que te encontraste al cruzar la frontera?

- Quizá, el policía que encontré en la aduana, le saludé y me invitó a echar unos potes por el pueblo.

Eta Xabier Amurizaren kobla batzu aditzen dira, Imanolék kantatuak. Gero Julio Cortazar hil delako berria ematen du irratia.

JOSEBA SARRIONANDIA

Galderrek gogoz kontra onartu zuen dantzaleku batera joateko proposamena. Etsaiaren aldean zegoela ikusarazi zioten musika burrunbatsuak eta argi-kliskek. Emmak gustura ematen zuen. Dantzan egiten zuen erritmoaren legeei batere begirunerik erakutsi gabe. Luze barik, lagun batzuk bistatu zituen. Gazteago ziruditen.

Hura ikusi bezain laster, saltoka eta musuka hasi ziren denak. Hau duk...

- Horrako hori Alejandro Goikoetxea dok-erakutsi zion Indalecio Bergarak Joseri.

Makina bat gizon eta emakume jo eta su zebiltzan haren agindupean, baita Indalecio bera ere, Burdinazko Hesian, metro bateko lubakiak egiten. Molaren erasoari eutsiko bazioten, kosta ahala kosta eraiki beharra zegoen Bilboko Maginot Lerroa, Somorrostrotik Sopelara lurra bete metrailadore. Gerora jakin zuen Josek, Goicoechea Molarengana abiatu zela Legutiotik.

- Putasemea dok hori, horratik! -minduta egiten zuen berba Indalecio Bergarak. Egiatan miretsi zuen hasiera batean.

- Gerreak traidoreak dakarz.

Hesiaren lehenengo arduraduna, Pablo Murga Ingeniarien kapitaina. Etxalarko Manuel Aznar, Jose Maria Espainiako presidentearen aitona. Wilhelm Wakonigg Austriako kontsul eta faxisten espioia. Eta Alejandro Goicoechea. Planoak eraman ez eze, arma-fabriketako egoeraren berri ere eman zion Jeneralari. Bilbo gerriko-gabetua zen, lurra bete saldukeria. Goikoetxea

barik hiria galduta zegoen. Josek ez zuen fitsik ere esan, Indalecio jota zegoen. Ez zen une ego-
kia. Beste batzuk ere etorriko ziren, batek jakin
zein izango zen hurrengoa. Traizioa gerrari zi-
tzaion, elkartasuna zitzaion modu bertsuan. San-
toñan esaten zieten eurek, abertzaleek, traizio-
natu zutela Errepublika. Cabañas kaporalari as-
kotan entzun behar izan zioten. Baina hura faxis-
ta zen eta, gainera, kartzelaria. Hormara sozia-
listak komunistak anarkistak ez ezik, eurak ere
joan ziren. Zelan azaldu Indaleciori? Traizioak
deitura euskaldunen grafia aldarazi gura zuen. *El
Liberal* egunkari sozialistari Goicoechea eta Goi-
koetxea guztiak zentsuratu zizkion Arbexek.
Arbex zentsorea. Arbex traidorea.

- Baina galdu, Bilbo Ingalaterra eta Frantziari
esker galdu zan!

Emmaren lagunek berba ingelesegiak oihu-
katu zituzten. Galderrek ez zien ez haiei ez Em-
mari ezer ulertu, ostera ere komunikazioaren
mugetatik kanpo baitzegoen. Egia esanda, ez
zuen ulertzeko ahalegin berezirik egin. Erosota-
sunaren mugetatik kanpo zegoen. Dantzazuloko
giro itogarriak irteera bilatzera behartzen zuen

behin eta berriro. Ustekabean neska batek bul-tzatu zuen, mugi zedin-edo. Zurtu egin zuen ost-tikadaren gogorak. Emmari begiratu zion. Lagu-na dantzan zebilen bere ondoan gertatzen ari ze-nari erreparatu gabe. Galderrek ez zekien oso ondo zertan ari zen, geldi, eskuak goratzeko au-sartu barik. Bere baitan galdetzen zuen Caponi burutik zer arraio pasatu zitzaion kronika idatzi zuenean. Apirilaren hogeita zazpikoak balantza desorekatzeko balio ahal zuen. Balio behar zuen. Kazetariak bazuen horren berri. Gernika erraus-turik ikusi izanak min handia eman zion. Fernan-dok, aldiz, ez zuen ikusi, Callaon gora baitzebi-len. Ez ikusitakoak ez dezake ikusitakoak adina-ko oinaze sortu. Era berean, ez sentitutakoak ez dezake sentitutakoak adinako min ekarri. Galde-rrek ez zekien Fernandok zelan sentitu zuen bere Madril itsutik. Bazekien sentitu zuena, hark, Ma-drilek ez bezala, Gernika izan bazuelako, baina ezin zuen zehaztu norainoko mina sentitu zuen. Eta bazitekeen ikaragarri sentitu izana. Bazite-keen Gernikari oso lotua egon izana. Bazitekeen abertzalea izana.

- Londresera ailegatu aurretik, Fernandok Parisen igaro zian denboraldi bat.

Denboraldi bat infernuan bururatu zitzaion Galderrri. Eta gero Emmaren berba batzuk ekarri zituen akordura: Moulin Rouge Moulin de la Gallette Mimi Pinson.

- Parismina nabaritzen zaiok.

«Joan den astelehenean Heinkel 111 eta Junker 52 bonbardaketariak... Gernika, euskaldunen hiri sakratua, bonbardatu... zuten. Astelehena azoka eguna izanik..., jende ugari zen herrian bonbardaketaren egunean. Bonbek herriko kale... eta etxe asko birrindu zuten. Ez dago zehazterik zenbat bizilagun hil diren. Jende asko toki antiaereoetara sartu ahal izan zen...». Dantzazuloa Elgetako lubaki bat begitandu zitzaion Galderrri. Bonbardaketariak bere gainean ari ziren, ez zen Emmaren gerra. Erabaki zuen Capon oso ikaratuta zegoela hura idaztean. Gauetz iritsi zen herrira. Idi-pareak aurpegi belztuak Euzkadiko Jaurlaritzaren kamioiak ikusi zituen Bermeorako bidean. Pikazaren gizonak ez sartzeko agindu zioten arren, bero-galdatan barneratu zen. Negar eragiten zion kea zen dena.

Idatzi zuen suhiltzaileek ez zekitela nola aurre egin suteari. Ikaratuta zegoen. Ikaratuta eta minduta. Jose bezain minduta.

- Alemanek ez eben Gernika txikitu, ezpabere ingelesek eta frantsesek. Non egozan ingelesak? Non dagoz ingelesak?, itaundu eustan behin sozialista batek; eurak ehiza-hegazkin sobietikoak ekarri ebezala. Eta nik erantzun neutsan eurek gerrea ekarri ebela, amorratuta erantzun be; baina arrazoia eukan, bai horixe, arrazoia eukan: non egozan ingelesak? Nik esango deutsut: Ingalaterran!

Ostikoa emaniko neska Fiona omen zen, Emmaren lehengusina. Fiona Junker. Fiona Heinkel. Mingaina zulatzen zion pearcing-a esbastika bilakatzen zen Galderri hurbiltzen zitzaion bakoitzean. Dantzazuloan oro zen Dresde Londres Nagasaki. Dantzazuloan oro zen argi-kliska burrunba Caponen artikulua. Hara joan aurretik, birritan irakurri zuen Galderrek. Ezinbestez. Ulertzeko eta harengana hurreratzeko. «Joan den astelehenean, Heinkel 111 eta Junker 52 bonbardaketariek Gernika, euskaldunen hiri sakratua, bonbardatu zuten. Astelehena azoka eguna iza-

nik, jende ugari zen herrian bonbardaketaren orduetan. Bonbardaketariak jaurtikitako bonbek herriko kale eta etxe asko birrindu zuten. Zenbat bizilagun hil diren zehazterik ez badago ere, hamaika dira harrien azpian geratu direnak. Jende asko toki antiaereotara sartu ahal izan zen, baina aterpeetan ere izan zen hildakorik. Bestalde, ospitale batean zauriturik zeuden 40 miliziar inguru hil ziren bonbardaketari alemaniarren bonben eraginez. Aterpeetara sartu ez zen jende ugari, dirudienez, inguruko baso-mendietara abiatu zen, eta han Heinkel 51 hegazkin arinek metrailatu zuten. Iluntze aldera Bilboko suhiltzaileak etorri ziren. Zegoeneko sutea herriko auzo askotara zabaldua zen haizea zela-eta. Gernikak labe baten antza zeukan. Bilbotik ekarritako hiru ponpek ezer gutxi egin zezaketen han-hemengo sute askoak itzaltzeko. Suhiltzaileek ezin zieten herrian geratzen ziren bizilagunen eskaerei jaramonik egin...».

Galder Trafalgar Squarera joan zen autobus gorrien bila. Kanean oro zen katu atxur mozkor. Fionaren besotik helduta zebilen. Trafalgar aspaldi galdu bataila da.

- Desorientatu egin gaitun.

- Bai zera! Gu toki egokian gaudek.

Arrazoia zuen Fionak. Taxi batera sartu ezean, enparantzara behar zuten garraiorik lortuko bazuten.

- Lehengusinak zioz Walthamstow-n bizi hai-zela. Primeran! Ni Crouch End-en bizi nauk. Autobus bera hartuko diagu.

Galderri etxetik oso urrun iruditu zitzaion Crouch End, end guztiak bezalaxe. Auskalo. Askoz hobeto ezagutzen zuen erdialdea bere ipar partea baino. Fionak barre egiten zuen etengabe, ageriko arrazoirik gabe. Galderrek, gehienetan, fucking baino ez zion ulertzen, horren zuen iparraldeko azentu traketsa.

- Liverpoolgoa duk -argitu zion Emmak.

Autobuseko kristalean berमतuta zegoen haren bizkarra, oinak mutilaren belaunetan. Galder gero eta deserosoago zegoen Fionaren gozameneko, urduritasunak blaiturik. Pentsatu zuen Condor Legioaren ehiza-hegazkinak zetoze-la burrun-burrun itsasotik, Mundakatik, oro zen metraila. Fernandoren etxeko argazkia bezain deuseztaturik gelditu behar zuen. Fernando bera

bezain apaldurik. Bere artean behin eta berriz galdetzen zuen zergatik joan zen Ingalaterrara. Erantzuna mihira labaintzen zitzaion. Idazten ari zen testuan topatuko zuen, nonbait. Emmari entzun nahi zion, nolana ere. Ohartu zen ezin zuela zirkinik egin. Lotuta zegoen eserlekuari. Non ote daude Luftwaffe-ko bonbardaketariak? Gainean zeukan Fiona. Mule vodka & laranja usaina zerion. Kanean oro zen zelan garaitu negua. Kanean oro zen autobus-gidari. Heinkel eta Junkerrek hamaika puska egin behar ditek autobus gorria. Gorria izateagatik, besterik ez bada ere.

- Oheratu haiz nire lehengusinarekin?

Budweiser

Elurra abisatu gabe etorri da Londresko asfalto-aren gainera, Fionak horrenbeste maite duen asfaltora. Egun egokia iruditu zaizu etxe ondoko lorategietan hara eta hona ibiltzeko, jitoan dabilen potinaren antzera, eta aspertutakoan taberna batera sartuko zara. Inor gutxi dabil kalean, eta inor ere ez zure moduan. Mara-mara ari du kanpoan. Urteko lehen maluta aldizkarira irristatu zaizu King Juan Carlosen ilea urdindu nahian. «*I feel profoundly Spanish. I'm a proud Spaniard, but I'm not a nationalist. Conceptually I don't share nationalism*». Aznar Espainiako presidentea mintzatu zaio *Time* aldizkariari. Bi aste lehenagoko alea da. Zuhaitz baten azpian geratu zara arretaz irakurtzeko. Ez da batere erraza eskularruak jantzita orriak pasatzea. Aznar da kazetarien helburu nagusia, baina euskaldunak el-karrizketatzea ere merezi bide du. *Time*-k Cristina Cuesta peace activist, Nicolas Redondo Terremos socialist politician eta Carlos Totorica Mayor of Ermua hautatu ditu.

Jakin beharrak bake-prozesua apurrarazi du egunkari-saltzaileekin, pakiekin. Hemendik aurrera kioskoetako egunkarien lehen orrialdeak irakurtzen saiatuko zara, lehen egiten zenuen moduan. Londresen egunkariak fucking garestiak dira; gertaerak, ordea, beti dira berdinak. Gertaera berdinak ez balira, salneurriek gorabeherak izango lituzkete, burtsan bezala. Hala ere, dena ez da pakistandarrak konturatu gabe irakurtzea zelatatzea espiatzea. Bat baino gehiago erosi duzu aspaldion.

- Inoiz ez duk *Ei Bi Si* hartzen, Galder.

- *ABC* dun. Joan den astean gainbegiratu ninan Instituto Cervantesen. Egunotako iritzi artikulua Moët et Chandon botilak ditun. Nik garagardoa edaten dinat.

Damutu zaizu garagardoarena aipatu izana, errazegia jarri diozulakoan. Uste du egoskor hutsa zarela eta hura adibide ezin hobea da. *Prejudice* erantsi du zure belarriak zulatzeraino, komunikazioa normaltze puntura iritsia ez balitz bezala. Dagoeneko hizkuntza ez da traba, dena aditzeko gai ez zaren arren. Bestelakoa da traba, bistan dago. Londres asfaltozko basoa da,

baina elur malutek basoa bakarrik estalidute, ez asfaltoa. Zu Fionarekin zabilta, baina gabe bazenbiltza bezala, gabe mara-mara. Bere etxera abiatu zara.

Hitzak eta argazkiak aireportuko baskulan galtzen direlako tesia gero eta toki zabalagoa hartzen hasi da zure buruan. «*Los 23 miembros de la Mesa Nacional de Herri Batasuna han ingresado en prisión*» desagertu da hiriko kale nagusietatik. Pisu gutxiagokoa eta, agian, argigarragoa da «*La ejecutiva de HB entre rejas*» esatea. Horrela irakurtzen dituzu titulu guztiak, xanpain egunkariaren kasuan areagotuta: «*¡A la cárcel!*». Nazioarteko kazetaritzaren aro berri baten atarian zaudetela ohartu zara. Zenbat eta laburrago, orduan eta eraginkorrago. Horretaz gain, ezer ere ez. Ertzaina policeman da. Herri Batasuna party da. Londres urbanoegia da, baso-oihanegia. Egunkari espainiarrek dauzkate mozkorraldiaren eskubide guztiak.

Pisuaren atarian topo egin duzu Fionarekin. Botila bat ardo zuri dakar. Faustino VI da ardorik maiteena hirian, modakoa, baina hil honetan Espainiak beltza bidaltzeari utzi eta apartsua kan-

poratzeari ekin dio auzokoen inbidiarako. Kataluniak Codorniu igortzen du; Madrilek Krug Grande Cuvée, Belle Epoque Brut eta Moët et Chandon uzten ditu. «*Los nacionalistas viven más cómodos en el País Vasco que los no nacionalistas*» irakurri duzu paki batenean. Ez bide dago alde handirik cava egunkari eta xanpain egunkarien artean, denak baitira hordigarriak.

- Fi, Agua of Bilbao behar dinat lehenbailehen.

Mila bederatziehun eta laurogeita Dianaren urtean Irratia aurkeztu dizu Fionak. Bere ohean zaudete, ardo zuria edaten. Aukeran nahiago du ardo hori. Zuri berdin dizu. Fiona umezaro ozpin-du baten produktu biologikoa iruditzen zaizu, hezkuntza-prozesu tamalgarri baten ondorio mitakza. Ez zaitu, dena dela, bere hautaketak larregi harritu. Zulo horretan Alemaniako irrati bat entzuteak harritu zaitu. Zure iritziz, aparailuak ez du sei libra baino gehiago balio. Erakusteko eskatu diozu, arren, sinesgaitz.

Ez da oso zaila izan Radio Nacional de España topatzea, Radio Exterior de España. Fionak azken zupada luzea eman dio zigarro bati, aurki-

kuntzari larregizko inportantziarik aitortu gabe. Zu sor eta lor geratu zara Espainiako ahots eza-gunak entzutean. Irratia egun pare bat uzteko erregutu diozu. Hamaikak hamar gutxiagotan entzun dituzu hurrengo eguneko egunkari nagusietako titularrak. Hamar minutu geroago hitz eta pitz hasi dira eztabaida politikoaren hizlariak. Fiona berandu ohartu da Trafalgar galdutako bataila dela. «*¿Habéis escuchado a la portavoz de Jarrai?: ‘Si quieren la guerra, ila tendrán!’.* *¡Ha brase visto esa niñaata!*». Oso gertu sentitu dituzu ahotsak. Hordituta dirudite, mozkortuta bustita kakatuta edanda.

Gritos de niños, gritos de mujeres, gritos de pájaros, gritos de flores, gritos de maderas, gritos de piedras y de ladrillos, gritos de muebles, de camas, de sillas, de cortinas, de cazuelas, de gatos y de papeles.

PABLO PICASSO

Caponen egunkariak bidalitako beste gerra-berrimailea, Alexander Marriot, Eibartik hurbil zebilen. Galderrek bazekien Gernikaren gaineko haren albisteak ez zirela ostegunera arte iritsi. Ben Capon Bilbon zen. Arratsaldean ibiltzera kaleratu zen. Kalderapekoak ikusi zituen errenkadan maskor itxurako iturri batean. Bilboko emakumeak ur-ontziak eta treskak noiz beteko zain zeuden. Arana Goiri batailoia zuten mintzagai. Gehienek jantzi beltzak zituzten soinean. Gizon bati baino gehiagori entzuna zion, mairuek emakumeak bortxatzen zituztela. Umeak jaten zituztela sinesten zuenik ere bazegoen. Auskalo. Gernikako irudiak ahaztu gura zituen alde edo mol-

dez. Ez zen erraza izango. Irudiak argazki bihurtuak ziren buruko artxiboan eta Bilbok ez zuen larregi laguntzen. Bazirudien harea zakuak husten dibertitzen ziren umemokoak bakarrik zuedela gorpuen hatsarekin nazkaturik. Hil-kanpaiak entzuten ziren edonon. San Anton San Nicolas Santos Juanes Santiago. Ezizen komunista eta anarkistarik gabeko hotsak ziren, kamarada gabetuak. CNT, POUM eta Alderdi Komunistak ez zekiten ezer intsentsuaz. Konturatua zen hiletak gero eta sarriago egiten zirela. Elizak antiaereo-etara sartzeko baino ez ziren abandonatzen. Fernando de la Revilla 22 Conde de Mirasol Begoña-Axpi La Laguna Lutxana 8. Orotara ehun eta hogeita hamazazpi aterpe zenbatu zituen. Jose askotan egon zen.

- Gehienak hezetasun handiko soto edo bebarruak ziran. Edo tunelak edo zubien azpian egokitutako tokiak. Akorduan daukat Rodriguez Arias kalekoa. Behin aurrez aurre euki nebazan Eliodoro de la Torre, Juan Astigarrabia eta Gonzalo Nardiz.

Parkeko lakuaren inguruan polizia bi zaldiz zamalkatzen ari ziren oso lasterketa patxada-

tsuan. Turisten erreguak jasan behar izaten zizuten noizean behin. Hyde parkean oro da argazki erretratu picture, baita neguan ere. IRAk zaldizko baino zaldi gehiago hil zuenekoaren paperezko irudi lainotua etorri zitzaion Galderrri gomutara. Barre egin zuen bere artean. Poliziak turisten itzuri zebiltzan, zaldizkoak ez du ezinbestean zalduna zertan izan. Parkean ez zegoen giro. Katagorrik ere ez zen ikusten. Emmak noiz edo noiz jauzi egiten zuen hotza engainatzeko.

- Hire aitona 1936ko azaroan iritsi zunan Espainiara. Haren lehen kronika hil horren hogeita hirukoa dun.

Egur puskak, koltxoiak eta altzari apurtuak pilatzen ziren etxe baten ondoan. *En los frentes no hay jornadas de ocho horas. En la retaguardia, si es preciso, no debe haberlas*, horman. Goriev eta Miaja jeneralen arteko zubi lanetan zebilela adierazi zion Koltsov *Pravda* egunkariaren kazetariak. Gero beste kronika batzuk etorri ziren, ez asko. Lehen brigadistak, Alemaniako komunistak. Khale prusiar ofizial ohia. John Cornford poeta, aspaldiko laguna. Inork esplikatu zion Madril brigadistei esker salbatu zela. Dolores

Ibarruri, Federica Montseny eta Victoria Kent-ek joan-etorri ugari egiten zuten fronteetara. Miretsi egiten zituen emakumeak. Navacerrada Buitrago Guadalajara. Durruti hemeretziak akabatu zuten Modelo espetxearen aurrean. Atoan eroan zuten Ritz hotelera, bertan baitzegoen milizia katalanen ospitalea. Gerra hasi aurretik otorduak 10 pezeta balio zuen Ritz-en. Kazetari atzerritarak Gran Via eta Florida hoteletan ziren. Koltsov bera ere hantxe zegoen.

- Gerra puta honegatik ez balitz, Espainia zoragarria lukek -argitu zion Marriotek Madrilerira iritsi zen bezain laster-. Ikusi, ikusi Errepublikaren prentsa berria: *Nuestra Cosecha, Nuestra División, Dabrowrzczak, Stajanov, Stalin...* Zaborra, ez beste!

Capon ez zegoen seguru gerrak zekarren zaborra ala zaborrak gerra. Auskalo. *ABC-Diario al Servicio de la Democracia, El Debate, Informaciones, Ya* erantzun zion gogorik gabe. Jakinaren gainean zegoen jada. Egunkari guztiak zeuden zentsuraren mendean. Marriotek bekozkoa jarri zuen. Ez zen harekin gaizki moldatzen baina, azken batean, ailegatu berria zen. Agindu zion

Chiki-Jaira eramango zuela pilota partida bat ikustera.

- Tori.

Caponen egunkariko artikulu baten fotokopia zeukan Galderrek eskuetan. Ez zen hark sinatua, ez eta Marriotek ere. Hedabide nagusietan bi egun lehenago agertutako berri eta iritzi-artikuluetan miatzen zuen. Informazioa toki askotatik iritsi zen Londresera. Egunkari bakan batzuek soilik zeuzkaten berriemaileak, Bizkaian hilketa basa jazo zenean. *The Times*-ek gogor salatu zuen Alemaniako hegazkinen ankerkeria. Hark jasotako Agirre Lehendakariaren hitz batzuk ere bazeuden Galderren paperean. *The Morning Post*-ek, bestalde, harri eginda galdetzen zuen zein ote zen hain triskantza odolbako haren benetako zioa. Hogeita bederatzian Salamancako Estatuburuak eginiko ukazioaren berri eman zuten hedabide ugari. Ez zegoen horren garbi nork deuseztatu zuen Gernika.

- Tori. Fernandok esaten dik argazkiak mal-tzurak direla, ez direna agertu gura dutela.

Negua hotz, Emma hotz. Urte mordoa joan ondoren lagunekin gogoratzeko balio duen ar-

gazki horietako bat zen. Urteak gorabehera ondo kontserbatuta zegoen. Bertan bost lagun eta bost izen agertzen ziren: Hume, Madner, Salinas, Capon eta Fernando. Argazkiaren atzealdean *Fernando Aranguren* zegoen idatzita. Galderrek izen-deiturak bakarrik identifikatu zituen. Begirik zolienak ere ez zuen hura ezagutuko. Ondo aldaturik zegoen. Murmurikatu zuen Emmak bera zurtzeko gaitasun itzela zeukala. Salinas Madrillgo kazetari bat zela azaldu zion hark, *La Libertad* egunkariko.

- Bazegonan beste bat, Jorge Salinas mexikarra. *Washington Post* egunkarirako idazten zinan.

- Ez duk hori.

- Berdin dun. Salinas ez zaidan interesatzen.

Argazkian CNTko emakume miliziar bi ere ba-zeuden, loteria denda baten aurrean, erretzen.

- Fernando Florida hotelean zebilean behar-reen, ikasi bitartean. Bertan ezagutu zitian kan-poko kazetariak.

- Gerra puta honegatik ez balitz, Espainia zo-ragarria lukek. Gerra puta honegatik eta, zer esanik ez, Peinado koñak nazkagarri honegatik.

Walter Moore, Henry Chilton Ingalaterrako enbaxadorearen laguna, zegoen beraiekin. Aspaldi esana zuen Frente Popularren gobernu ahulegiak atak zabaltzen zizkiola inboluzio bati. Ministerioetan inork jaramon pittin bat egin balio, ez ziratekeen egoera hartara helduko. Atzerantzko aldaketa sudur aurrean zegoen. Han denek zuten haren berri.

- Hik zer uste duk, Fernando?

- Aranguren eszeptiko hutsa duk, nik uste.

- Bai, zer espero daiteke heriotza bizitzaren interesgarriena dela dioen morroi honengandik?

Moorek lehen aldia zuen kazetarien bunke-
rrean. Larregitxo iritzi zion espainiarraren ustea-
ri. Ikusi balu zelan metatzen ziren gorpuak fron-
teetan, oso besterik mintzatuko zen. Baina, gor-
puak gorpu, bestelako kezka batek entretenitzen
zuen. Inboluzioaren gaineko gogoetak ahantzi
ezinik zebilen artean. Otsailaren amaieran esan
zion Julian Besteirori Falangeko Madrilgo bulego
nagusia ixteak kalte handiak ekarriko zizkiela.
Calvo Soteloren hilketak nola edo hala gertatu
beharrekoa baino ez zuela aurreratu. Laguntze-
ko prest zeudela. Azañak berak entzun behar

izan zuen. Britainiar guztien izenean hitz egiten zuela.

Marriot eta Terencek iruindarrarekin tema-tzea nahiago zuten.

- Birritan pentsaturik, gerrari esker izan diagu herri zoragarri honen berri. Ezagutu behar-ko duk Espainia zeharo anakronikoa dela. Esker-rak Tharsis, Rio Tinto eta beste enpresa batzuek bussines egiten duten! Lehen Mundu Gerran ere ez zenuten parte hartu!

Caponek bakea emateko erregutu zien. Fernando joan eta etorri zebilen, kazetarien esan eta trufei erreparatu gabe.

Moorek argi eta garbi laga zuen ez zegoela ados azkenarekin. Gomutatu zen Bizkaia eta Gipuzkoako itsasgizonek burdingaia garraiatu zutela urpekontzi alemaniarren mehatxuari muzin eginez. Ausartak ziren euskaldunak. Sota ekarri zuen akordura bereziki. Josek ere ahotan hartzen zuen sarri hura.

- Santurtziko moiletan Ramon Sota zanaren andra zaharra ikusi neban, Lady Sota, ilobek inguraturik. Lehen gerra handia amaitu ostean, sir izendatu eben ha be. Andreari besterrira joan

beste aukerearik ez jakon geratzen. Dan-dana Sota sir bihurtu ebenen erruz. Eta gero askok dinoe italianoek berbea jan ebela Santoñan. Ederra gauzea!

Londresen oro zen jela izotza horma leia. Oro ice. Emma ice, parkeko edozein putzu balitz bezala. Galderrek bazekien jada Fernando Arangurenena, ondo jakin ere. Londreserainoko bidea Paristik beharrean, beste nonbaitetik pasatzen zelako susmoa zuen aspalditik. Madrildik, esate batera. Emmak erakutsi argazkia bere susmoa egiaztatzerako baino ez zetorren. Haren etxean botatakoa Gernikan aterea zela jakin ondoren hartu zituen lehen errezeloak. Adinak eta jatorriak salatzen zuten Fernandorekiko lotura. Nahikoa argi zegoen oharkabean joateko. Galderrek ez zion orduan ezer aipatu Emmari. Eta bere ustez, orain bazegoen zer komentatu. Fernando Arangurenek oraina ez eze, iragana ere bazuen; zertaz idatzi bere testamentuan. Baina Emmak eraman bazuen haren etxera, hari bakarrik zegokion erabakitzea noiz argitu bien arteko harremana. Kazetaria eta ikaslea elkarren alboan zeu-

den. Zitekeena zen argazkia Fernandorena izatea. Eta hura ere Emmak bakarrik azal zezakeen.

Moorek beste guztiek baino hobeki zekizkien Espainiarekikoak; hobeki Euskadirekikoak. Marriot iritsi berria zen, azken batean. Baina ez zuen ahoa zabaldu. Hitz egiteko moduari desgoki bazeritzon ere, hein batean bat zetorren harekin. Espainia ez zen hogeigarren mendeko herria.

- ...Eta gerrari esker izan badugu herri zoragarri honen berri, gerra hau ere zoragarria da!

Terencek bakarrik barre egin zuen Marrioten ateraldiaren kariaz. Caponek begi-imintzio bat egin zion Fernandori. Ulertzeko. Iruindarrak beste keinu batez adierazi zion ez zuela halakorik zertan egin. Ondotxo zekien zergatik zen Espainiako gerra ingelesaren ardurakoa. Hain ana-kronikoak ez ziren izango, ba!

Caponek apur batean lankideen solasa utzi eta Fernandorengana jo zuen.

- Marriot eta biok bagoazak hiriburutik.
- Banengoen! Aspergarria duk Madril uneon.
- Gora joateko asmoa zaukaagu.

- Ederki! Zenbat eta gorago, orduan eta giro hobe. Neuk ere igo beharko nitek.

Isilune bat egin zen.

- Hire herrira goazak! -iragarri zion Marriotek.

Handik lasterrera, Iruñera alde egin zuten beren egunkariaren ideologiak eskaintzen zuen bisita-txartelari esker. Caponek bi aste ere ez zituen han igaro. Iparraldeko lur-eremu errepublikarrera sartu zen, Madrilen adostu bezala. Marriot matxinatuekin geratu zen.

Londresen oro zen nola aurre egin hotzari. Ez zegoen ordurako poliziarik. Ez zegoen apirilaren hogeita bederatzian Caponen kronikarik. Editorialaren alboan, Marriotek bidalitakoak hura eta beste kazetari ingelesen lehen bertsioa ukatzen zituen. Galderrek pentsatu zuen Hyde parkean ez zegoela hotza engainatzerik. Negua mutu, Emma mutu. Marriot Gernikan egon ahal izan zen egun hartan, faxisten eremu gero eta zabalagotik baitzebilen. Kronikak, hala ere, hogeita zortziko gertaerak zekartzan. Nazionalek aurrera egiten zuten geldiezin Gernikarantz, eta Salamancako nahiz Sevillako jeneral koronel kapitai-

nek uko egiten zieten gorrien zein beraien menpean borrokatzen ziren guztien gezurrei, bereziki Agirre bezalako koldarrenei.

Galderrek jakinarazi zion Emmari, Caponen oso bestelako lumaz idatzi zuela Marriotek, inongo hitz zirraragarririk gabe, nahikoa hotz, inguru zelatatzera mugatzen den belatzaren moduan. Gernikakoari dagokionez, Radio Nacional de Salamancako esatariaren hitzak jaso zituen. Luis Bolin matxinatuen prentsa-bulegoetako nagusiak dena ukatu zuen. Hogeita seian eguraldi beltza egin zuen eta ezinezkoa zatekeen abioek hegan egin izana. Baina, hortik harago, Guernica ez zen militarren jomuga, handik 15 kilometrora baitzeuden eta berehala sartzekoak ziren. Zergatik deuseztatu behar zuten beren esku erortzear zegoena?

- Emma, utziko al didan argazkia? Bihar itzuliko dinat.

Murfhy's

Arestian aparailu beltz txiki bat erosi duzu. Fionak azaldu dizu non eskuratu merkea. Gehiengatik gauz entzuten duzu, Radio Exterior de Españako hamarretako albisteak eta hamaiketako eztabaida politikoa. Ordubete berandu iristen dira zurera beti, zerbaiten beldur balira bezala. Etxeko kontuak bata bestearen atzetik datoz. Satelitea Madrilgo zulo batean dago eta handik hurreratzen zaizkizu berriak sigi-saga. Gaur gauean presoan sakabanatzeaz eztabaidatu dute. Begiak itxita, Fionak lo plantak egin ditu, gau-mahai gaineko erlojuaren orratzak jokoaren amaiera behin-behinekoa erabaki izan balu bezala. «*En los periódicos de hoy he leído que un preso de Basauri ha sido trasladado a Palencia por mala conducta. Se llama Unai*» entzun diozu Bilboko hizlariari. «*¿Qué quiere decir Unai?*» galdetu diote solaskideek.

Gora begira geratu zara, sabai zurira, Fiona ez bezala. Fi xuxurlatu diozu, lehen gauek zeureganatuta. Lehenengo hartan gogotik desiratu

zenuen norbait egotea etxezuloan, ez baitzenekien noraino irits zitekeen traizioa berarenean. Lehenaz gero, ohitu egin zara eta Fi esaten diozu, ondo ulertzen dizula seguru ez zauden arren. Ez dakizu oso ongi zertan den zuen artekoa. Berbak ez dira gelako zoko-mokoetara galitzen.

Fionak oso keinu bereziak egiten ditu gauean irratia pizten duzun bakoitzean. Gaur zeharo aldatu zaio aurpegia. «*Gracias por darme la oportunidad de participar en esta tertulia política. Es fantástica. La escucho todas las noches. Muchas gracias y felicidades*». Ez da zaila Radio Exterio-rrereko solaskideen aurpegia irudikatzea. Ez da zaila zeurea irudikatzea. Ispilura joatekotan egon zara zer nolako itxura duzun ikustera, baina iritsitakoan oso besterik izango delakoan, ohean gelditzea erabaki duzu. Hobe da irudikatze hutsa, deitu duena bere etxean berbetan irudikatzea, zoragarria da, gauero entzuten dut, ordu erdi eman du sarrera prestatzeko, edo gehiago. «*Voy a ser muy breve. Llamo desde Canarias pero tengo un amigo en San Sebastián, muy buen amigo, que conoce a la perfección*

todo lo que sucede en el País Vasco. ¿Podría alguno de ustedes aclararme si para ser miembro del PNV hay que tener cuatro de los ocho primeros apellidos en vasco?».

Ez dago alde handirik zu eta jakoaren menpean dagoenaren artean; edota zu eta jokoaren menpean dagoenarenean. Seduzitua denak ez daki noiz izan den seduzitua. Maiz bere egiazko egoeraz ez da ohartzen. Zeu ere menpean zaude, beharra eta premia handiak dira, ez dago erabakitzea norekin eta nola, ezta noiz ere, eta tokia ez da garrantzitsua. Badaukazu nola ase egarria, horixe da dena.

Dirudienez, irratian esaten dutena ez ulertzeak zuri bizkarra ematera bultzatu du Fiona. Estatistikako kanpai horietako baten traza hartzen diozu, non positiboa oin eta zangoetan hasten den eta negatiboa gerri eta sorbaldan. Erdian simetria erabakitzen duen goi elurtua dago, mendi elurtua, kontrasu batek zeharkaturik, azken arboletako adar horixka bustietaraino. Eta mendi elurtua den arren, beroa nabaritzen duzu muino horretan, larru hits eta ameslaria kiskaltzen dizun beroa. Jakin duzu Ermuko San Antonio

okindegiko kamioi-gidari bat kanporatua izan dela boikot bat dela-eta.

«*ETA gunman kills couple in Seville*». Teletestuan ez dago ezer. Egunkarietako berriekin konformatu beharra dago. Unibertsitateko manifestazio batean esku zuriak erakusten dituzte lau neskek. Hiruk barbourrak dituzte soinean, bai eta laukidun lepokoak ere. Eguzkiak jotzen du. Ez dakite, seguru zaude, bertoko kazetetan agertu direla. Baina beti badago argazki batean noiznahi dotore eta elegante agertzen dakien jendea. Eta inportantea da, barruko informazioa benetan laburra baita, eta irudi batek gutxienez mila hitz biltzen baititu. «*Earlier this month the Basque Nationalist Party refused to guarantee backing for Mr Aznar's minority government because of his policy towards ETA. Basque bishops have been calling for negotiations and even urged the Bishop of Bilbao not to attend funerals of ETA victims*». Negukotzat baino gehiago, udaberrikotzat jo duzu.

Bueno, da igual, otra que he oído en radio exterior del coñolavela es que la moza del vídeo de pedrojota era en realidad Kepa, pero no puedo creérmelo, no?, o es verdad, era Kepa? eso si que iba a ser lo que faltaba. De lo que no hablaron los muy hijos de puta fue de la mani de Senideak, que me tuve que enterar por Jose, pero que banda de mamones hijos de puta. Ahora, eso sí, de españoles astronautas, españoles campeones del mundo de tenis, españoles solidarios con centroamérica y españoles que me comen todos la polla, de eso a todas horas...

JONIK «Sukarrietako hondartza»
arrantzontzitik Bilboko
Unai tabernara igorritako faxa

«LOS aviadores alemanes al servicio de los rebeldes españoles han bombardeado Gernika, quemando la ciudad histórica venerada por todos los vascos. Han intentado herirnos en lo más sensible de nuestros sentimientos patrióticos, mostrando una vez más que Euzkadi no puede esperar nada de quienes no vacilan en destruir el país, hasta el umbral del santuario de

nuestros siglos de libertad y de democracia. Ante este ultraje todos los vascos deben actuar con violencia...».

Hau gutarra dok, esan zuen Josek bere baitarako hitzak entzun eta berehala. Hura ez zen Goicoechea bezain zitala, Murga bezain txepela, Arbex bezain zuria, Wakonigg bezain bihozgabea, Aznar bezain azeria. Bihotz-bihotzez esker-tu zituen berbak. Ez zuen bestelakorik espero. Ez zuen bestelakorik desio. Edo beharbada bai. Hura ez zen mendekurako benetako deia, borrokan metro bakar bat ere amore ez emateko erre-gu negargarria baino. Chamberlain lehen ministroa eta Churchill akabauko nebazan nik, sumintzen zen Jose Galderrekin mintzatzen zen bakoitzean. Faxisten ankerkeria ez zen nahi eta ezin dabilenarena. Beranduegi.

- Irakurri duzue Agirre Lehendakariaren adierazpena?

Capon Madner Hume Maria Gorozieta Bilbon zeuden atzera ere. Emakumeak argi utzi zuen ez zela hotelera sartuko. Madame Lil izateko gogo gutxi zeukan, nonbait. Kazetariak musu bat eman zion masailean. Ezpaineak azala ukitzean,

artean hoztu gabe zegoela begitandu zitzaion. Ondoren, deus erran gabe aldendu zen. Capone barik, Capon gura zuen hark ere. Ikusitakoa ahaztu gura zuen lipar batez. Ibili. Bazekien, dena den, guztiz ezinezkoa izango zela. Abertzaleen aldeko kanpai-hotsak entzuten ziren han eta hemen. Nuestra Señora de Begoña La Cruz San Felicísimo San Jose Obrero. Londres gogora ekarriz saiatu zen. Ez zuen desiratutako emaitzarik lortu. Londres egunkaria zen Londres brigadistak ziren Londres Chamberlain zen Londres Westminster abadia zen. London Marriot zen.

- Entzun dituk atzoko aguirrekeriak? -galdetu zion biharamunean kazetari italiar batek Caponen lankideari.

Ez zebilen oso urrun Gernikatik.

- Gaur goizean ikusi diat Bolin prentsa-arduradun nagusia. Gozoa jarri duk.

- Bere aurpegia ikus zezakeat.

Italiarrak irri egin zuen. Baita Madnerrek ere Bilbon. Agirrek egindako deiaren larriak nahia eta ezina besterik ez zuen erakusten haren ustez. Bilbo matxinatuen mende geratuko zen luze gabe. Nortzuk sartuko ziren lehenengo:

errekete nafarrak italiarrak mairuak nazionalak. Eta nola menderatuko zuten, hiria birrinduz, Germanian bezalaxe, ala Gran Vian gora etsai bakar bat topatu barik? Seguru asko beste erakustaldi bat egingo zuten alemaniarrek. Pena handia hartuko zuela Junker eta Heinkelek San Francisco txikitzen bazuten. Caponek zurtuta begiratu zion. Aurreko gauaren ikuskizunak ez zion txantxetarako zirrikiturik irekitzen. Harritu egiten zuen Madner bezalako jendeak. Marriot bezalako jendeak. Onartu beharra zeukan hura bere gerra ere bazela.

- Kazetari ingelesak alde faxistan baino lasaiago zebiltzanan Errepublikako eremuan. Aurrenekoan zentsura estuagoa zegonan. Egunkari kontserbadoreek eta, zer esanik ez, matxinadaren aldekoek errazago zeukatenan. Erreportari batzuk atxilotuak izan zitunan eta gero eremutik bidaliak, edota heriotzara zigortuak...

Galderrek ez zekien Emma entzuten ari zen. Aspaldi hartan gero eta helduezinago iruditzen zitzaion, gero eta urrunago, gero eta neguago. Londresi so zegoen burua bagoiko leihatilan bermaturik. Ordu horretan kanpoan oro zen metro

autobus auto tren estres. Barruan oro zen kontrako. Geroko laga beharko ziren zentsurak eta zentsura-ondoak.

- Marriotek askotan gezurtatu zinan Caponen informazioa.

Sanzetti, Fabrizio eta Verinirekin zegoen hura. Lehenak Radio Requetetik jasotako adierazpen bat irakurtzeari ekin zion: «*Son completamente falsas las noticias transmitidas por el ridículo presidente de la República de Euzkadi, relativas al incendio provocado por las bombas de nuestros aviones en Guernica...*». Marriot kafea edaten ari zen oso hurrupa ttipietan. Espainiara-tzeak ekarri zion kafearekiko zaletasuna. Espainia oso txikia zen bere aburuz. Aguirre barne Mola barne Largo Caballero barne. Ez zitzaizkion espainiarrak gustatzen. Ez zitzaion espainiarren arteko gerra madarikatua gustatzen. Adierazpenaren arabera, ez zen Alemaniako hegazkinik Espainian; bai, ordea, Frantzia eta Errusiakoak. Erreportari italiarrek itsu-itsuan sinesten zuten Estatuburuak Gernikakoaz kaleratutakoa, baina ongi aski zekiten Alemaniako eta Italiako hegaz-

kinak zeudela; hegazkinak pilotuak soldaduak. Denek zekiten.

Aulki azpian jarri zuen hustutako katilua. Gogoratu zitzaion lotinant batek narratu ziola euskaldunek Alemaniako armadaren lau kide harra-patu zituztela Otxandio aldean egun batzuk lehenago. Ez zegoen halako informazioaren behar-rean. Sarri Matias Bauer *Berliner Tageblatt*-eko kazetariarekin biltzen zen. Alemaniarra izatea zen alkohola lortzeko bermerik onena. Bauer bat zetorren Marriotekin. Espainiarrak ezdeusak ziren. Sagutxoak. Gerra txikia gerra handi baten aurrekaria baino ez zela. Alemania zela handia. Erresuma Batua, bere bistako gainbeheran, zela handia.

Ondoko italiarrei begiratu zien Marriotek. Aspergarriak zirela ebatzi zuen. Espainiarren antza hartzen zien, nolabaitekoa behinik behin. Ez zekien zer pentsatu Gernikan jazotakoaz. Bateko dinamitero asturiarrak, besteko pilotu germaniarrak. Batean baieztatzen zutena bestean gezurtatzen zuten. Hori zen, azken batean, gerra bat. Eta bera faxisten lur-eremuan zebilen. Ez zegokion erabakitzea Alemaniako hegazkinik zegoe-

netz Spainian, eta are gutxiago bonbardaketa-
ren gaineko iritzi larregi ematea. Ez zuen harritu-
ko Gernika errepublikarrek erraustu balute. Esta-
tuburuaren adierazpenak zioenez, hortxe zeu-
den Irun eta Eibar.

Barruan oro zen Emma. Kanpora begiratzen
ari zen, Londresera. Galder ere begira zegoen,
derrigorrean begira egon ere. Zegoeneko eraiki-
nek esangura bat zuten berarentzat, Southwark
Cannon kalea The Borough Dorrearen zubia Ja-
maica kaleko geltokia Bermondsey eta Ber-
mondsey (hegoaldea) Peckham. Bere baitan gal-
detzen zuen, nola gogoratuko zuen paisaia joan
ostean. Litekeena zen letra larri guztiak galtzea.
Alde egiteak grafia aldaraziko zuen. Bilbo gal-
tzeak desoreka ekarri zien hizki batzuei. Galderr
Tomas Urkiza txikia etorri zitzaion gogora. Guda-
ria beteranoetako bat zen Santoñan, lehenago
Burgosen egondakoa, hango moldiztegian gra-
fiari eusten jarduna. Prisionero abertzaleek izki-
riatzen zuten kazetatxoa inprimatzen zuen, ideo-
logia guztietako kideek lagunduta. Kazeta hain-
bat emakumeren artean eroaten omen zuten
Iparraldera.

- Nire andrearen faltea igartzen neban nik gehien -kontatu zion Josek Galderrri, aurkeztutako eguneari-. Maritxu Agirreazaldegi, -tx eta guzti.

- Ikurrina, erromeriak, Begoñako Ama Birjina, Bilboko tabernazuloak, Errekaldetik Pagasarrirako bidea, kantetan ibiltea lagun artean..., dandanak komeria hutsak! Txortaldiekaz gomutatzen nintzan ni, txortaldiekaz! -erantzun besteak.

Marriotek ere buruan zerabiltzan. Txortan egin gabe zebilen Madril utzi zuenetik. Kopetaraino zegoen. Gogaikarriak ziren erreportari italiarrak. Frecce neri nora, haiek hara. *La Stampa* *La Tribuna* *Corriere della Sera*. Zihoazela popatik hartzera! Nahiago zuen ingelesen berbeta.

Frontetik zetozen soldaduekin egin zuen topo. Nekea zen haien begietara. Han ez zen deusetarako gogorik. Aurrera egiteak baditu penak, jakina. Kazetari espainiarrak begiztatu zituen gero. Otu zitzaion haiek ere gogaikarriak zirela. Zenbat mozolokeria eta zenbat mozorrotu gura. Batzuek hunkiturik aditzen zituzten frecce neri-en giovinezzak frontetik itzultzen ziren ba-

koitzean; besteek, frankisten caralsolak. Gerra bestelakoa izaki. Gerra hura ere izaki. Ez zuen maiseatzeko eskubiderik. Berak bonben ezta-
dak soilik entzuten zituen. Metrailaren burrunba. Desolazioaren isila. Kazetari espainiarren berba-
roak ez zuen soldaduen isiltasun gotorra zula-
tzen. Zertaz ariko ote ziren. Zer ikusi ote zuten. Berari eta kanpoko kazetari gehienei ez zieten
frontera joaten uzten. Nahikoa zuten Bolinek eta
gainontzeko ofizialek emandako informazioare-
kin. Matias Bauerrek berak pasatutakoarekin.
Ongi zekien nondik ateratzen zen informazioa.

Soldaduekin zetorren ofizial batek Gonzalo
Queipo de Llanoren hitz batzuk helarazi zizkien
Radio Sevillatik atereak: «*Las acusaciones del
canalla de Aguirre no tienen fundamento, pues
que por el chiribiri -viento característico de la re-
gión- la Aviación no pudo actuar...*». Marriotek
bitxi zeritzon informazioa hain urrunetik jaso-
tzeari. Radio Requete Radio de Salamanca Radio
Sevilla. Inork ez zion ofizialari azalpenik eskatu.
Dena irakurri beharra zegoen.

- Bolinen agindupean egozanek ederto egi-
ten eben euren beharra, bai horixe! -onartzen

zuen Josek-. Danok geunkan haren barri. Ema-
ten eban geure batailoiko prentsa burua zala.
Zomorro Baltza esaten geuntsan.

Londres langarra da. Londres euri-zirina da.
Londres euri fina. Londres zirimiria ere bada.

- Chiribiri?

- Bizkaiko haizea dela zioz Jeneralak. Hara,
sinistu beharko zioagu!

Bilbora ere iritsia zen albistea. Bonbardaketa-
rena zabaldu zuen Euzkadiko Jaurlearitzako fun-
tzionario berak ekarri zien. Estimatu egiten
zuten. Busturiakoa zela komentatu zien, Axpeko
elizan ezkondua. Haren ustez, barrualdeak baino
hotzagoak ziren kanpoaldeak. Elizetan izan ezik.
Epeltzarren eramaten zuela jendeak maitasuna
haitara.

- Zirimiria ez da bertoko haizea, ezpada euri
fina. Ez deusazue kasurik be egin behar faxisten
guzurrei!

Madner eta Terencek ezin izan zioten barre-
algarari eutsi.

- Bizkaiko haizeak ukitu zioz hari ganbara!

- Espainia osoan pentsatuko ditek haize-
erauntsi batek txikitu duela Gernika.

Caponek ez zuen barre-zantzorik egin; ez eta Euzkadiko Jaurlaritzako Martin Zabala funtzionarioak ere. Artean hondamendia zegoen bien gogoan. Goizegi txantxetarako. Larri mintzatu zitzairen:

- Astelehenekoa zelan jazo zan eskribidu behar dozue zuek. Mundu osoak jakin behar dau!

Isilune esanguratsua egin zen. Caponek zigarrreta bat isiotu zuen. Martinek arrazoia zeukan. Horretarako zeuden han. Kontatzeko. Eta lehen baino lehen kontatu behar zuten, abertzaleen lur-eremua gero eta txikerragoa baitzen. Poliki ezpainetaratu zuen zigarrreta. Terencek bare zedila eskatu zion Martini. Azentu ulergaitza gazte harena. Gerrak horrelako arazoak zekartzan. Gerra bakoitzak bere suntsiketak ditu. Gerra bakoitzak bere azentuak ditu. Informazioa. Marriotekin gomutatu zen. Zertan ibiliko ote zen. Hark ere izango zuen Queipo de Llanoren hitzen berri. Agian, baten batek azalduko zion zer zen zirimiria. Agian ez. Eta inork azaldu ez bazion, duda egin barik sinetsiko zuen zirimiria Bizkaiko haizea zela. Edo agian ez. Marriot Fernando bera

baino eszeptikoagoa zen. Eta inor gutxi bezain zuhurra.

Capon eta Martin Diputazioko jauregira abiatu ziren. Asteazkenean hutsik zeuden kaleak. Gernikara sartzeaz zeuden faxistak. Moroak Oizen. Gernikara sartzeaz. Guernicara sartzeaz. Euzko Gudarostearen soldaduak Bilbora ziren bilduak. Ezkortasuna zen hiritar askoren begietara. Batzuen ezkortasuna beste batzuen baikortasuna da gerretan. Martinen aburuz, Capon zen kazetari jator bakarra. Gustatzen zitzaion jendeak erreportari kanpotar batekin ikustea. Nori ez.

- Ez deusazu inori be kontatu behar zuri kontatuko deusudana.

Josek ere usu esaten zizkion horrelakoak Galderri. Ulertzen zion al bait jende gehienari kontatu behar ziola.

- Behin baten Luis Bolin Zomorro Baltza ikusi neban, non eta Santoñan. Cabañas kaporal putakume harek esan eustan. Labanea euki baneu samea moztuko neutsan.

Serio begiratu ohi zioten elkarri.

- Nori?

Galderrek ez zion dena sinesten. Irabazleak dira gerretan isilpean kontu gehien gorde behar dutenak. Caponek ere ez zion Martini den-dena sinetsi.

Londres metroa da. Londres trenea da. Emmak hiriari begira jarraitzen zuen. Paisaiek bazeukaten ordurako izen bana Galderrentzat. Errazago uler zezakeen haren begiek ikusten zutena. Esku hartu gura zuen. Emmaren begirada paisaia londrestar hartatik harago zihoalakoan zegoen. Gero eta helduezinago. Gero eta urrunago. Gero eta neguago. Ez zuen zirkinik egiten. Gogoeta egin zuen. Kronikak eta frankisten hil-keta ankerrak nahiko arrazoi argigarria ziren Ben Caponen istripuarena baztertzeke. Gainera, kazetari asko epaituak eta kanporatuak izan ziren lehenago, bai eta baten bat tirokatua ere. Istripu ofiziala. Ingalaterrak ez zuen hautsik harrotuko. Argi zegoen Capon garbitu egin zutela. Emma iritzi berekoa zen. Emma gehienetan zen bere iritzi berekoa. Hausnarrean segitu zuen. Hasiera batean elkarrengana hurbiltzeko aukera ekarri zuena ez ote zen elkarrengandik urruntzeko zioa. Ezin segurtatu, ordea, hura apurtzeko

asmoz eraman zuenik Fernandorenera. Zirudie-
nez, beste batek ere jakin behar zuen harena.
Auskalo. Barruan oro zen I love you. Barrualdeak
eta kanpoaldeak. Ez ote zen bera gero eta itxia-
go. Gero eta mendi-puntago. Gero eta negu go-
rriago. Tap tap tap zihoan trena. Hiru minuturo
beste tren bat gurutzatzen zitzaien hegoalde-
rantz. Ez zihoazen tap tap tap. Gehienez ere tap.
Tap idor eta zurruna. Tap brastakoa. Emmak
lepoa bueltatzen zuen bidaiariren bat ezagutu
balu bezala. Baina ezinezkoa zen tap bakarrear
inor ezagutzea. Ezagutu uste izatea ere ez. Tap
gehiago behar ziren horretarako. Tap tap tap.

Bass

- Vuoi una pasticca?

- Ez duk harri bat -erantsi du Fionak.

Bestelako harria zabaltzen ari da zure burura. *«En palabras del ex ministro de Interior, González Txabarri 'representa a la España inferior, que ora y embiste cuando se digna a usar la cabeza'. Le comparó con el dictador chileno Augusto Pinochet. 'Mi maestro, el profesor Tierno Galván, decía que los únicos ejemplos vivientes que permanecían de la España más vieja, más caduca, más intolerante y más partidaria de los procedimientos inquisitoriales se conservaban en el País Vasco'».* The Observer egunkaria Guggenheimez ari da, eta horrexek zurtzen zaitu. Lehen egunetako pasioa hustu ordez, museoa eta erakunde armatua parekatuak dira Ingalaterrako kazetetan. Dagoeneko Euskal Herria ez da soilik ETA dagoelako, biak daudelako baizik. Bazara, txapeloker baten hilketari eta Kandinskyren garabato bati esker. Zuretzat ez da oso gogorra, Londresera heldu zarenetik Guggenheimen gaineko is-

torio mordoia entzuten ohitu baitzara, baina otu zaizu apur bat arraro gerta dakiekeela bizitzen luze daramatenei. Bazarete pistoladun sare baten eta arte-lanen biltoki dirdaitsu baten bidez.

- Nahi duk bat? Vuoi una pasticca? Sei pieno di pregiudizi, amico basco!

Italiarrek dantzazulo bihurtu dute zure etxea, dantzazulo bihurtu dute zure gela zikina. Sarri egiten dute. Han-hemen puskatu egunkari eta aldizkariak, haiek husturiko latak kuxinak zigarrokinak paperak diskoak eta zabor italiaraduna gehitu behar zaizkie. Hori gutxi balitz, sei pieno di pregiudizi erraten dizute behin eta berriro. Zirt edo zart egin beharra daukazu: Mazeko preso irlandar errepublikarra ala irla desertu bateko robinsona. Fiona, italiarrak eta irratiko solaskideak. Beti bidali nahi izan duzu mezu bat botila batean. Garagardo botila batean. Zure kutuna, italiarren pilulak barik, hura baita. Ez daukazu sinetsarazi nahi dizuten adina aurreiritzi. Eta, beharbada, ez duzu zertan aukeratu. Botilaren sistema errepublikarra da azken batean, guztiz nahaspilatzailea endredamakila barraban. Zirt edo

zart egin beharra daukazu. Mazeko robinson errepublikarra zara. Irratiko fiona italiarra.

Errepublikarrak robinson agertzen zaizkizu ostiral gaueko irratsaioa. Stormont-eko hitzarmen historikoak gorriz tindatu ditu solaskideen ezpainak. Gaur ez dago musurik, seiak eta bederatziak zilipurdika baizik, horren omen dira desberdinak irlandarren eta euskaldunen premia sexualak. Hitzarmenaren jokia sexuala baino, erotikoa da. Saltsa-maltsa bereko osagaiak dira itxurak jantziak ukituak musuak keinuak. Zu zeu musuekin geratzen zara. Musuaren eszenifikazioa, musurik gabe. «...es que lo de allí no tiene que ver nada con lo de aquí». Zuen, antza, ez da erotismoaren mugarrietara iristen, sexu hutsa da, sexu basatia: Ataun Zugarramurdi Lesakako Sanferminak Santimamiñeko pornogramak: aluak eta zakilak handik eta hemendik, seiak eta bederatziak.

- Baduk pregiudizi mordo bat!

- Hik ere ikasi dun hitz demonio hori, Fiona?

Egun bi eman ditu zurean, hiru edo lau orduko loaldiak egiten, larru kontuei muzin. Galtzaile ikusi duzu zeure burua hamaika garagardo latak

inguraturik, besaulki batean hankalatraba, dantzaz ibili direnei begira. Amaitu egin dira eskua ipurdiz ipurdi ibiltzeko egunak. Fiona ondoko gelara sartu da, italiarrek ba omen dute perika ona, beti; berba handiegirik gabe sartu da, fucking bat edo beste, hi haiz kakatia, hi. Ez diozu erantzun. Itsasbehera dago pisuan, itsasgora dago Radio Exterior de Españan, Radio Nacionalen. Irratiko solaskide lausengaria politikari baten hitzak errepikatzerara mugatu da. Itsaso beltza goradoa. Badira egun batzuk gauero erretolika berbera entzuten duzula. Mina pairatu alde zara. Mapa eta lege ozeanografikoetan itsaso erabat herrena da itsasbeherarik gabeko itsasoa. Badi-rudi Belizeko bandera duen petroliontzi bat hondoratu dela Bizkaiko Golkoan. Ez al duzu gauero aditzen euskaldunak biolentoak edo demokratak direla?

Inoiz Radio 5 Todo Noticias, Butano eta Euskadi Irratia ere sintonizatzen dituzu, oso lantzean behin. Zure fucking irrati merkearekin ematen du igelen biltzarrean zaudela ekaitz beltzaren aurretik. Gaur euskarazko abesti bat iritsi zaizu suabe eta abisatu gabe, baina konturatu

aurretik ahots goxoak garrasi lazgarriak bihurtu dira eta kanta bortizki asfixiatua izan da onden borroka doilorrean. Fiona eta pisukideen energia negatiboari egotzi diozu. Polita izan da.

Koltxoitik sabaiak urrunago ematen du, are gehiago zorabiatuta zaudenean. Gau-mahaia ere altuago dago, irratia eta kondoiak. Gero eta gehiago zara komunikazioaren preso errepublikarra, gero eta gehiago informazioaren irlako robinson bizar sarria. Beste garagardo bat behar duzu belarri ertzak pixkatxo bat berotzeko. Fionak agurtu egin zaitu. Zuk ez diozu jaramonik egin, Franciscok deitu du Frantziako errepideetatik. «*¿Qué tal por las carreteras francesas?*». «*La tertulia es cojonuda. Todavía no ha aparecido ningún piquete... ¿Me oís?*». «*Perfectamente, don Francisco, siga usted...*». «*...Es que estoy en la cabina del camión, y hace un frío que pela. Voy hacia Irlanda. Quería decir que los irlandeses għgdade toifelasegh ahop de este proceso de paz...*». Ez diozu garbi ulertu. Astero sartzen da inor Espainiatik kanpo. Zeuk ere pentsatu duzu irratsaioa bortxatu, ziegatik ihes egin eta Viernesekin ezkontzea.

*Inpernua zirudin Gernika gureak gauaren ilunean.
iBizi geran arte gure baitan izango dan irudi negargarri!*

Sugar ikaragarriak zijoazten lurretik zerura. Oñaze nabarmenaren agerpen ziren sugarrak. Erri baten azkenatzaz mintzo ziran sugarrak. Erri baten eriotzatzaz mintzo tristean ari ziran sugarrak.

Alboetako mendiak mamorrutzarrak iduri. Diran bañore mila bider aundiagoak ziruditen.

*Sua zen eregin. Ondamendizko sua jaun da jabe.
Erriaren alde batetik bestera suaren eresia bestereik etzenun entzungo.*

Sua... sua... sua...

JESUS INSAUSTI «UZTURRE»

Ahuspez, Galderrek eskuak luzatu zituen itsumustuan. Bota bat ukitu zuen lehenik. Pixka bat gorantz egin eta aspaldi hustutako Bud botilatxo bat agertu zitzaion. Horrela ezinezkoa zelakoan, koltxoiaren eskuinaldera lepoa bihurtu eta argia piztu zuen. Behegainean azken bospasei asteetako ondasunik gehienak zeuden sakabanaturik. Emmak ez zuen ulertzen zelan bizi zitekeen ana-

basa haren erdian, hartan Fernandoren antza zuela.

Galtzerdi baten barruan sumatu zituen antiojoak. Izara maiztuarekin zikina garbitu eta sudurrean pausatu zituen. *En el bazoqui de Ochandiano ondea ya la Cruz de Borgoña del Requeté...* Idatzizkoari mila bederatziehun eta hogeita hamazazpiko apirilaren bederatzia jarri zioten orriaren behealdean. Iruñeko Zapateria kaleko berrogeita bederatzigarrenari zegokion alea. Estafetakoa izan balitz ere, berdin. Egia aitortzera, Iruñekoa zela zen datu baliagarria. Koltxoian etzanda, buruak jarraitzeko agindu zion. Aldez aurretik zehaztu bako presa zen. Kanpoan oro zen berandu ez bultza mesedez come on come on. Desasosegua erabat jabetu zen berataz. Arratsalde osoa estutu gura zuen presak.

Puzkerra bota bazuen ere, kiratsa beste toki batetik sartu zen gelara. Garagardo bat behar zuela erabaki zuen Galderrek. Arropak eta bestelakoak mugitzeari ekin zion. Alferrik. Egun batzuk lehenago galdu Gizarte Segurantzako txartela baino ez zuen topatu. Sukaldera jaitsi zen. Aurreko gaueko hondarrak zeuden lapiko ba-

tean. Rissotto platerkada batez gain, lau garagardo hartu zituen hozkailutik.

...Los fugitivos vascos que se acogen a nuestras columnas, cuentan espantados la tragedia de villas como la de Guernica, que han sido quemadas y destruidas por el fuego intencionado de los rojos casi en su totalidad, cuando las tropas nacionales se encontraban a más de quince kilómetros. Kiratsa Salamancako Estatuburuaren komunikatu gisa etorri zitzaion azkenean. Puzkerak eta putzak bat egin zuten bere aurka, hizkuntzari matxinada. Artikuluaren sinatzaileak Jeneralaren hitzak jasotzen zituen hirugarren paragrafoan. Lehenbailehen jakin gura zuen bigarren artikulua *Diario de Navarra*-ri ere bazegokion. Ez zen luze zain egon. Hirurak egunkari beretik atereak ziren. Marriot zuzen zebilen. Sevillako eta Salamancako prentsa-arduradunek ezin hobeto egin zuten beren lana. Nork ez zuen sinetsiko Espainia nazionalean Asturiasko dinamiteroek erre zutela Gernika?

Galderrek bihotz ikaratuaren taupada biziak nabaritu zituen koltxoian. Ez zegoen seguru norrenak ziren berbak. Kazetariarenak eta Estatu-

buruko bozeramailearenak mingain bakar bate-
nak omen ziren. Sevillako edo Salamancako gi-
zona kazetaria bera zitekeen. Gogoratu zitzaion
Luis Bolinek hamaika izen hartu zituela. Sinatzai-
lea ezagutzeagatik berehala baztertu zuen,
baina behin-betiko onartu zuen hamaika bizi be-
reganatuak zituela sasikume hark. ...*Otra vez en
marcha y otra detención, a poco, en la larguísima
caravana, para dejar paso a los generales
Mola y Solchaga, que regresan de inspeccionar
las más avanzadas líneas. Vienen en coche y
vuelven de los parapetos donde suenan los tiros
y se arriesga la vida.* Eta Fernando Arangurene-
na ez zen salbuespena.

Laugarren botila amaitzean, Galderrek ukabi-
lak estutu zituen besoak luzaturik, ezkerrean
hormaren parean eta eskuinean balio handirik
gabeko ondasunen gainean. Hormak berde be-
zain mutu zirauen, ez zen Fernandoren etxekoa
bezain adierazgarria bezain kuxkuxeroa bezain
zuria bezain gezurtia. Bezain traidorea. Deigarria
zen haren biluztasuna. Hainbat astetan ez zuen
deus eskegi, eta eskegi bazuen, ez baitzuen go-

goratzen, ez zegoen jada. Isilarena egiten zuen horma biluztuak, irudi beltz beldurgarririk gabe.

Kanpoan oro zen goxo suabe ezti. Barruan oro Enrique VIII oro Cromwell oro Lord Mountbatten. Larri zegoen. Bihotza lehertzeko zorian zeukan, zaldi zauritu batena bailitzan. Urdaila kexu zuen zirriz-zarraz eta korrok egiten hasi zitzaion. Hotzak ere bazegoen, burusi eskoziar bik orkatiletatik zamaraino estaltzen zuten arren, berogailua aspalditik piztuta zegoen arren.

Berriro bereganatu zituen lurrean lagatako paperak.

- È una corrispondenza per te di Paesi Baeschi -iratzarri zuen Donnatellak hamarrak aldera.

Galder arrapaladan jaitsi zen eskaileretan behera eta bortxaz kendu zion gutuna italiar harrituari.

- Grazie Donna, sei un sole -musukatu zuen algara batean.

Susmoa zuen Joserren erantzuna zela. Egia aitortzeko, zegoeneko uxatuak zituen itxaropen guztiak.

Fernando Arangurennek bospasei hilabete zeramatzan *Diario de Navarra* egunkarian, Rai-

mundo Garciaren zuzendaritzapean. Bazitekeen Mola bera eta buruzagi karlistak ere ezagutu izana, Baleztena, Lizartza, Arraiza... *Arriba España*-n ere idatzi omen zuen inoiz, baina hogeita hamazazpiko apirilean lehenaren berriemaile ofizial jardun zuen Iparraldeko Frontean.

Matxinatu faxisten aldeko frankotiradorea ez ezik, Bolinen harikoa ere ba omen zen Fernando. Hark ez zuen nahitaz esan nahi haren izaera harroputza zeukanik, ezta ere hark ongi antolatutako azpijokoetan zebilenik, baina haren begiko izateak gordinki salatzen zuen. Galderrek lehenetik zekien Bolin ez zela Urdaibain errebeldeak Gernikako errautsetara sartu zirenean. Haren ordeztan, Aguilera eta Rosales kapitainek zelatazen zituzten kazetari atzerritarrak. Fernando haiekin zebilen orpoz orpo. Galderrek bazuen Aguileraren berri Londresera joan baino lehena-gotik. Gerra hasi bezain laster lerro batean ipinazazi ei zituen bere laborariak, sei aukeratu eta besteen aurrean tiro koldarra eman. Pour encourager les autres, ulertzen duzu?, esplikatu zion Peter Kemp ingelesari.

- È una corrispondenza per te di Paesi Baschi.

Zur eta lur utzi zuen Joserren gutuna jaso izanak. Ez zuen uste gai izango zenik Fernandoren arrastorik inon topatzeko. Onartu beharra zeukan aurreiritziaren okerra. Bere kolporako barre egin eta irakurtzeari ekin zion. Hirugarren artikulua urte bereko maiatzaren leheneko data zekarren, errepublikarrik gabeko eguna, sinatzaileak hondakin eta errautsak besterik ez baitzitu topatu, negar-antoluek lagatako begi gorriren bat.

Galder bihurtu egin zen. Lagunak bidali hirugarren artikulua hark garbi frogatzen zuen Fernando Gernikan egon zela apirilaren azken egunean. Beharbada hogeita bederatziko eguerdiaz gero zebilen. Haren begiek ere ikusi zuten Caponek hiru egun lehenago ikusitako sugarren kitoa. Fernando beste kazetari nazionalista eta atzerritar batzuekin batera sartu zen, zeru urdin baten azpian, hondakin-meta espantagarrira. Aurri eta errautsak bakarrik topatu zituen, hura ere ikararuta sartu omen zen. ...*Ayer se procedió a la inspección de las ruinas de ese es-*

pectro todavía humeante. Un oficial de prensa nacionalista y un sargento de la IV Brigada de Navarra dirigieron las operaciones y demostraron a los periodistas españoles e internacionales la falsedad de las acusaciones de Aguirre difundidas a través de Radio Bilbao.

Aguilera eta Rosales kapitainak han ziren. Fernandok ez zeukan bizkarra uneoro zaintzen zionik. Italiarrak ere bere kasa zebiltzan. Erreportariak galde egin zieten bizikide izutu apurrei, noiz ofizial nazionalen laguntzarekin noiz bakar-ka. Caponek Monzon ikusi zuen Fernando Aguilerekin mintzatu zeneko tokitik gertu. Santa Maria eliza zutunik zegoen oraindik.

- Nor da basakeria honen erantzulea? -Monzon Ertzaintzaren lanen antolaketan zebilen buru-belarri, eta zenbaitetan ematen zuen ez zituela erreportarien galderak aditzen.

- Franco.

Kiskaltzen ari zen herrira sartu aurretik, Alemaniako nahiz Italiako abioien berri eman zioten iheslari batzuek. Gobernazioko funtzionario ezezagun batek bonba zati batzuk erakutsi zizkien bildutakoei. Zorroaga teniente eleaniztuna ere

haiekin zebilen. Itzulpenak egin behar zituen. Lekuko batzuek, harrigarriro, ez omen zekiten gaztelera.

- Ikusten dozue? Arranook ez deustie dudei tokirik ixten.

Josefinatarren ospitalera joan zen. Han ez zegoen arranoren arrastorik. Fernandok, behintzat, ez zuen ezer ikusi, eta bakarrik ibili zen. Ospitalea birrindurik zegoen. Ofizial bati galdetu zion ea gaixoen biziak errespetatu zituzten, eta hark sorbaldak goratu zituen, zer zekien berak. Soldadu nazionalak sartu zirenean ez zegoen inortxo ere. Capon apaiz talde batengana hurbildu zen hiru egun lehenago.

- Bonbardaketea hasi aurretik berrogeita bi miliziar zauritu egozan hemen. Orain danak hiltzotzik -arranguratu zen Alberto Onaindia Valladolideko katedraleko apaiza. Gerora elkarrizketa bat egingo zion periodikoan argitaratzeko.

Ulertu zien aita Etxeandia hil egin zela bonbardaketan. Gero Errenteria auzunetik jarraitu zuen. Bonba su-emaileek etxeak erretzen zituzten. Bide beretik ekin zion Fernandok ere, ageriko arrazoirik gabe, txikitutako San Juan kaletik.

- Meatzari asturiarrek maisutasunez jokatu ditek. Dinamitak erraiak erauzi zizkiok herriari.

- È una corrispondenza per te di Paesi Baeschi -iratzarri zuen Donnatellak hamarrak aldera.

...Los que han cometido tal acto de vileza se refugian hoy en Bilbao, hacia donde el ejército del general Mola marcha imparable. Nos queda la amarga sospecha de que lo que ha ocurrido en Irun, Eibar y, ahora, en Guernica, no sea más que un aviso de lo que puede ocurrir en Bilbao. Galderrek hasperen egin zuen. Ez zegoen besterik bere zorionerako. Zegoeneko hutsik zeuden Bud botila guztiak, balio handirik gabeko ondatsunen artean ezkutaturik. Alkoholak eragindako zorabio txikia nabaritzen zuen sabaiari begira.

Bat-batean, Fernando Aranguren *Diario de Navarra*-ko gerra berriemailea ikusi zuen lainotan, Gerra Zibileko historiaren hizki ikusezinetan desitxuraturik. Koltxoian etzanda Teresa Barasoain zuen akorduan, eta Jose Fermin Aranaz eta Indalecio Perurena eta Maria Garaikoetxea eta Juanito Etxegoien eta Leon Urroz eta Pilar Arozena. Beste hildako guztiekin ere oroitu zen. Begitandu zitzaien paperezko frontean zeudela, bai

zera. Zalantza egin zuen. Adolfo Urioste edo Angel Allende Salazar kaleetan gernikar egoskor apurrei galdetu behar izan zien zerk beldurtu zitu-
tuen. Inork kontatu behar izan zion hasieran dena joan-etorria zela, astelehenero bezalaxe, eta gero itsasadarretik hegazkin bat agertu zela eta bonba eztandak entzun zirela Ibarra de San Juan ibiltokian, Ezenarro familiaren jauretxearen ondoan. Gordeleku antiaereoetara egin zutela korrika oihuka negarrez. Gero baten batek keinu egin zuen ateratzeko, pasea zela arriskua, eta berehala zerua hegazkin beltzez tindatu zela, sua eta kea, ez zegoen ezenarrotarren etxearen arrastorik. Sua eta kea. Esan omen zion arren ez salatzeke, edo salatzeke hala nahiago bazuen, zegoeneko berdin zitzaiolako, aita senarra seme-alaba biak kiskalita atera baitzituzten Bilboko suhiltzaileek.

Londres londresa da. Josek argi zeukan irabazleek ez dutela inoiz galtzaileengandik ezer nahi izaten. Mundu berriak galtzailez lepo behar zituen kartzela hilerria besterria. Hura Bilbokoe-kin batera erori zen. Ikaratuta zegoen. Larrinaga-ko kartzelakoak salbuetsita, lehen aldia zen ma-

txinoak aurrez aurre ikusten zituen. Onenean hebain-hebain eginik lagako zuten. Ugari fusilatzen zuten eta denak makilatzen zituzten. Kartzelaraturakoan galdu egin zen ikara, ohituraren ohituraz eta lehen egunetako egurraren egurraz derrigorrean galdu ere, sarriago ikusten baitzuen Cabañas kaporal mengelaren begitarte kamutsa, kopeta zimurrez betea, Laredo aurreko zeru-muga baino.

Hil batzuk lehenago, aldiz, Torrontegi hotelean, irabaztearen eta galtzearen arteko haria gero eta ikusezinagoa zen matxinoen aldekoentzat. Askapenaren tenorea gerturatu ahala, gero eta begi-bistakoagoa zen CNT eta FAIkoen ordua. Nazionalek Artxandako muinoetara iristea lortzen bazuten, Arenal eta Abando anarkisten esku geratuko ziren. Emakume aberats batek erran zuen abertzaleak alde egiten ari zirela Hendaiara Bordelera Southamptonera. Frantzia eta Ingalaterra herri traidoreak ziren: abertzaleen eta komunisten lagunak. Abertzaleen eta komunisten lagunak ziren hoteleko kazetariak ere. Galderren ustez, Ben Caponek jakin behar zuen Fernando Aranguren faxisten luma

zorrotza zela. Baita besteek ere. Eta agian ez zitzaien axola. Edozein Fabrizio Verini Sanzetti bailitzan. Baina Nafarroako egunkari baten lumaduna ez zen edonor. Emmari egindako traizioa sentitu zuen Galderrek. Baita Fernandok Emmari egindakoa ere. Biziki.

Bulmers

Letra mekanografiatuak garunera amiltzen zaizkizun balak dira. Biharko egunkariak zure argazkia erakutsiko dute, hil-oharra, bere arimaren alde otoitz egin eta gaur, hilak zortzi, gorpua-rreango mezatara joan zaitezela eskatuten deusuee, iloba, lehengusu eta beste senideak, bere samin-agurra bialdu eutseenei esker beroenak emoten deusuez... gazte jatorra ematen zuen. Eta ondoan, behin eta berriro hiltzen zaituzten letra mekanografiatuak.

Badira egun batzuk ez dakizula ezer Fionaz. Birritan deitu diozu etxera, baina ez dagoela informatu dizu pisukide batek. Ez zara ausartu non dagoen galdetzeraz. Gura duenean azalduko da, ohi duen moduan. Ez diozu atzera ere hots egingo, ematen du pisukidea gogaitzen ari zarela. «*¿Qué os ha parecido la visita del Rey a las Hurdes, 75 años después de que lo hiciera su abuelo Alfonso XIII?*». Francisco eta Maria eta Adriano eta Lourdes eta Maria del Pilar eta Maria de los Angeles eta Antonio eta Eduardo eta Kepa eta

Luciano eta Emilio eta Antonia Josefak irratira deitzen badute, zeuk ere dei dezakezu. Ezustean harrapatuko dituzu solaskideak, eta aurpegiratu-ko dizkiezu hainbat korapilo eta jira-bira. Ez duzu dudarik egiten entzungo dizutela, Ingalaterratik dei egiteak abantaila ematen baitu. «*A mí me ha gustado cuando Su Majestad les ha dicho que son un ejemplo a imitar, que son un pueblo que cree en su tierra y que la ama profundamente. Me ha parecido precioso*» arrapostu egin du solaskide batek. Beharbada Rosa eta Carlos eta Alejandro eta Dolores eta Avelina eta Javier eta Marcos eta Andreu eta Penelope eta Maria Jesus eta Rodrigo eta Cristinak deitu behar dute. Zu ez zara irratigintza berriaren Simon de Bolivar.

Kalera irten baino lehen Fionarenera azaltzeko posibilitatea aztertu duzu. Baita berehala zokoratu ere. Baliteke pisukidea soilik egotea eta ez duzu aspertu nahi, inondik ere. Egunkaria erosi duzu Fulham-en. Hiriko autobus gorri batean, Earls Court-Holborn oker ez bazabiltza, neska nerabe batek zeure egunkari berdina daroa. Ohartu zara bere lagun ingelesari ikusarazten diola zer den Jarrai. «*Esta organización ha*

admitido que comerciantes y hosteleros de Oyarzun han empezado a pagar el dinero exigido como chantaje para sufragar labores de adiestramiento...». Bost axola ingelesei zer den Jarrai (Fionari moda eta Picasso interesatzen zaizkio). Eta harritzekoa da, behin baino gehiagotan ikusi dutelako izen beldurgarri hori paper britainiarretan. Beharbada ingelesei ez zaie kanpoko ardua (ez al dira Bill Blass diseinadore amerikarra eta *Guernica* nahikoa kanpotar?), edo beharbada zuek behar ez diren tokietara zabaltzen dituzue zuen kezka eta penak. Izan ere, besterrira baino lehen Jarrai Alde Zaharreko tabernetako aurpegi ezagunak ziren gehienbat, lagun bat edo beste, baina Londresen, ordea, egunkariak, irratia eta, orain, miretsitako autobus gorriak.

- Jarrai es la cantera de eso.

«*El ayuntamiento bilbaíno cedió a grupos del complejo ETA aulas para actos políticos*», irakurri duzu nora ezean zabiltzalarik. Letra mekano-grafiatuak burura amildu zaizkizu. Ez duzu alkaterearen izena akorduan. Oroitu beharra daukazu. Igandea urraturik, udaletxe ondoko tabernetan

gosaldu ohi duzu, bertatik bertara bizi baitzara. Han irakurtzen dituzu eguneko lehen albistek. Dena egoten da eskura. Zure auzokidea da albisteen sinatzailea. Noizean behin elkarrekin sartzzen zarete Zazpi Kaleetako tabernetara, «hau gure zuzendaria duk» aurkeztu zizun behin hitzaldi baten ostean. Zuzendaria ez da zurekin gogoratuko, baina ezagun duzula esan dezakezu lasai asko. Haren egunkarikoak oso letra mekanografiatu lasaigarriak izaten dira. Londreskoek, ostera, hil egiten zaituzte behin eta berriz. *«Por otro lado, el área de Cultura y Turismo de dicho ayuntamiento llegó a autorizar el pasado 17 de febrero la celebración en el barrio de Bilbao La Vieja de una fiesta con motivo del día del preso. Las actividades programadas en la solicitud eran las siguientes: trikitixa, poteo, exposiciones y concierto».*

Eta dei egingo bazenio? Honezkero etxean izango da. Pisukidea haserretzen bada ez da zure errua. Harena da, Fionaren pisukidea izateagatik eta etxean egoteagatik. Baina ez diozu deituko. Horretan pisukideak ez du ezelango errurik. Hots egin barik, egunkariaren hondarrak

xurgatzeari ekin diozu. Hamar urte betetzen dira lehenengo gonaberdeak, Espainiako emakume bibotedunak, Benemeritara sartu zirenetik. Santanderko eta Xixongo alkateek, bien bitartean, harremanak apurtuko dituzte Meteorologia Institutuarekin. Apurtu beharra dago eguraldi hobea lortuko badute. Honetan alde gutxi daukazue zuen auzokideekin. Eskerrak Kantabria eta Asturias hegoaldean ez dauden! Ezin omen zarete horren urrun joan. Zuen eguraldia autonomikoa da zuen EITB bezalaxe. Eguraldiaren iragarpena ez da ez guztiz haiena ez guztiz zuena. Londresen euri-langarra ari du etengabe. «...*Miles, cientos de miles... Resulta imposible precisar el número de ciudadanos que se han visto forzados a abandonar el País Vasco por las amenazas de ETA o su entramado*». Taigabe. Tantaka.

Letra mekanografiatuak burura amiltzen diren balak dira. Letra mekanografiatu madarikiatuak. Letra madarigrafiatuak. Egunkariek zure argazkia erakutsi dute. Hilda zaude. Hilda. Hilda. Hilda. Gazte jatorra ematen zuen, aipatu dute ezagutzen ez zaituztenek zure aldeko hileta-elizkizunean. Emakume batek egunkari bat darama

besapean. Eta barruan, behin eta berriro hiltzen zaituzten letra mekanografiatuak.

David Darrah, corresponsal de prensa en el lado franquista, visitó las ruinas acompañado de un oficial fascista. Aunque comprendía el español, simuló que lo ignoraba y habló en francés. Se dirigieron a un anciano que removía los escombros. «¿Cómo sucedió esto?», preguntó el corresponsal. El oficial fascista tradujo la pregunta al español. El anciano respondió que los aviones llegaron en gran cantidad y no dejaron de bombardear hasta que todo estuvo en ruinas. El oficial tradujo al francés: «Dice que antes de que el ejército de liberación entrase en la ciudad, los anarquistas pegaron fuego a todo». Darrah dio las gracias en francés al funcionario.

CLAUDE GERNADE BOWERS,
AEBetako enbaxadorea
Espainian 1933-1939

Ontzi motordun txikietan bandera gorriek harro egiten zuten izokin urbanoen bidaia arratsaldeko lehen orduetan. Bakoitzak bere lengoaia erakusten zuen, Londresen nork bere lengoaia erabiltzen baitu. Bere bandera gorria. Alboetatik arraunlariek aurreratu egiten zituzten, zorabia-

turik gasolioaren usain sarkorraren eraginez. Zenbaitzuek destainaz begiratzen zieten. Aha-teek, lerro bakarrean jarrita ur-bazterra hasten zen tokian, larririk gabe zeroaten itxarotea.

Zubi ondoko baranda batean bermaturik zegoen Emma. Ez zirudien espantatuegia. Gara-gardo botila batetik edaten zuen astiro, ilunabar hotzaren kolore aldaketari adi. Ez zen ohikoa ka-lean edatea, baina hura toki berezia zen. Taberna eta arraunketa taldeak nahasten ziren ibai ondoko ibiltokian barrena. Ezker-eskuin mugitu zuen burua, sinesgaitz.

- Nondik atera duk Fernando kazetaria zela?
- Beste batean kontatuko dinat.

Emmak ezadostasunezko imintzio adierazgarria egin zuen. Caponek ere ezezko seinalea egin zion Gernikako alkateari, gazteleraz ederki aski molda baitzitekeen edonorekin.

- Zortzi edo bederatzi mila ginan herrian atzo. Ganera, egin kontu pelota txapelketea ego-ala -penetan mintzo zitzaion Jose Labauria Porturas Gernikako alkatea. Ubilla I.ak eta Ubilla III.ak Arrien eta Kortabitarteren aurka jokatu behar zuten.

- Non zeunden?
- Udaleko gordelekuan.

Aita Arronategik ahoa ireki gabe baieztatzen zuen herririk gabeko alkateak narratzen zuen guztia. Gernikako apaizen kopuru handiak harritzen zuen Capon gehien.

- Heinkel 111 asko ikusi genduzan antiaereoetik. Eta Junker 52, tranbiak.

Labauriak ez zekien garrantzitsua ote zen kazetari ingeles batekin hitz egitea.

- Zenbat hil dira?

- Oraindino ez dakigu. Etxe gehienetako suak amatau ziranean ekin geuntsan gorpuak jasoteari. Tren geltokiaren ondoan ikusi genduzan sei, ehiza-hegazkinek metrailatuta. Zaharren etxean bonba batek hogeita bost andra hil ebazan...

Ez zebilen gezurretan. Berriemaileak berak ikusi zuen asiloko sarraskia.

- Hiri-erditik urrin, hiru kuartel eta arma lantegi bi egozan. Unceta y Cía eta Talleres de Guernicari ez eutsien erasorik egin.

Kalean hotz izugarria egiten zuen eta tabernetan bero itogarria. Galderren belarriek ozta-ozta jasaten zituzten londrestar ile-laburren

arrantzak. Barruan oro zen azentu ulergaitza excuse me excuse me ez dut aditzen. Kaleak gabe zeuden arren, tabernetan ez zen zirrikiturik beste berba etsai batentzat. Nondik ote dator jendea? Neska-mutil gehienek aurpegi kalpar jantzietan nabariak ziren ispilu aurrean izandako borrokak. Barruan ere oro zen borroka.

- Entzuidan, Emma. Heuk erakutsitako argazkiak Fernandoren iraganera eraman nain -traizioak eragindako desasoseguak ebaki txikiak egin zituen Galderren hitzetan-. Fernandok egunkari frankista baterako idatzi zinan. Badu, bai, nahikoa arrazoi horretaz ez mintzatzeko.

Joserekin gogoratu zen. Hark ere bazuen nahikoa arrazoi zenbait kontu sarri ez zabaltzeko. Erandioztarrak argi zuen Larrinagako kartzela eta Cabo Quilates presondegi-itsasontziko triskantza famatuen erantzuleak, hurrenez hurren, UGTkoak eta Cartagenako miliziarrek izan zirela.

- Ez nebazan begiko, herria saldu izana leporatzen euskuen. Halandabe, ez genduan Cabañas faxistak sozialista eta anarkistekako ikamiken barririk eukitea gura. Isilpean gordeten genduan.

Emma isilik zegoen. Gernika ere isilik zegoen. Haize pozoituak Fernando eta kazetari italiarren arnasaldiak estutzen zituen zaharren egoitzan. Aguilera kapitainak hondakinak erakutsi zizkien.

- Hemen ere argi eta garbi ikus daiteke leherketa behetik gora eta barrutik kanpora sortutakoa dela. Zuloak etxeetako oinarrien perimetroan daude, eta honek esan nahi du lehergailuak barruan ipini direla... Begiratu hormak! Bertan ke beltzak eragindako kedar lodia ageri da, eta hori gasolinak ekarritakoa bakarrik daiteke... Eta kaleak, zer? Guernicako kaleak suzko hondakinez beteak daude, baina ez daude deuseztaturik... Sutea herriko hegoaldean sortu zuten eta, haizearen eraginez, iparralderantz zabaldu zen ziztu bizian... Bistan dago maisu-lan deabruzko baten aurrean gaudela. Eta nor izan daitezke hain ongi gauzatutako triskantzaren egileak errefuxiatu ibili diren asturiar meatzariak baino?

Fernandok ez zuen suzko orratz arranodunik ikusi, bonba mina SC-250 eta BIE su-emaileak. Dar-dar egin zuen, gorputz meharra astindu egin zen.

- Ondo hago, Aranguren? -Aguilerak trufa egin zuen.

- Bai, ez da ezer.

- Putakume horiek ez ditek inor barkatzen.

Kapitainaren ustez, gerra ez zen harentzat.

Eta agian arrazoia zeukan. Botalarria eragiten zion Gernikan nagusi zen ke usainak. Noizean behin zapi busti bat eramaten zuen aho-sudurre-ra. Han ez zegoen gorpurik.

Biharamunean, dutxan zutunik, Galderrek nekez ikusi zituen bere oinak behatzak atzazalak. Garagardoak bazekien bere lana ongi betetzen. Ispilu borobilak betzuloak erakutsi zizkion. Ez zekien Fernando berriro ikusi nahi zuen. Behin besterik ez zuen ikusi eta iruditzen zitzaion betidanik ezagutzen zuela. Ase eta bete zegoen. Gezur egin zuen Gernikako bonbardaketaz, Petainen altzora aldendu zen Espainiatik eta gero Londresen aurkitu zuen aterpe. Londresen oro baita aterpe gordeleku ongi etorri welcome. Iru-dien artean ehortzita bizi zen azken kukuaren doinuak noiz entzungo. Alegiazko toki mekano-grafiatu batean. Baina beharbada Emma zuzen zebilen. Ez zuen eskubiderik horrela berba egite-

ko. Eta ez zuen eskubiderik ezer leporatzeko. Ba omen zagok arrazoi bat gauza bat egiteko eta beste bat gauza bera ez egiteko.

Arratsaldean, aurreko egunean ezer gertatu ez balitz bezala mintzatu zitzaion Emma. Irribarrak hori erakutsi gura zuen behinik behin.

- Nork bere Gernika omen dik..., nork bere Blitz-a...

- Nork bere Dresde...

Emma Dresde baino urrutiago zihoan. Eskuak praketako poltsikoetan herabeki ezkutatu eta ibiltzeari ekin zion. Galder ohartu zen hark, eza-gutu zuenetik lehenengoz, kontatu gura zuela. Kontatu zer. Galdetu egin zion. Caponek Madnerri eta Terenceri itaundu zien Areatzako Boulevarden.

- Gernikara noak berriro. Nork etorri nahi du nirekin?

Besteek brastakoan jaso zituzten begiak kikkara zurietatik. Ez zegoen azalpenik zertan eskatu.

- Erabakita zagok. Joan egingo nauk.

Caponek bidaide bat topatu zuen arratsean. Georges Berniard *La Petite Gironde*-ko kazeta-

riak Euzkadiko Jaurlaritzako oniritzia lortu zuen hara hurbiltzeko hogeita bederatzian. Euzkadiko Gudarosteko komandante batek lagundu zien. Gizon puska ausarta eta olerkari ezin hobea, esan zuen Emakume Batzako kide batek. Autoaren aurrealdean gidaria eta kazetari frantsesa zihoazen. Berniardek Urkiaga esaten zion euskaldunari.

- Tomas Urkiaga ezagutu neban nik morroilope sartu barritan. Esan euskun Gregorio Balparada Bilboko alkate liberal ohia garbitu ebala Cabo Quilatesen. Eta Larrinagan faxista bat baino gehiago txikitu ei eban. Baina ez dot uste olerkirik eskribitzen ebanik.

Caponen ustea zen bera zela hiruretan lasaien zebilena, bai baitzekien bere egunkaria faxisten gustukoa zela. Gainera, Marriot ez zen urrun ibiliko. Gernika inguruko muino batera iritsita, Errigoitiko errepidearen ondoan, Mauser batzuek egin zieten harrera. Frantsesak bere paperak astindu zituen ikara batean.

- Erreportariak gara! Gure herriak Esku Harztearen Aurkako Batzordeko kideak dira!

Capon ohartu zen oker zebilela. Urkiaga lasai mintzatu zitzaion Berniard zurbilaren lepo ondoran. Gerora ikasiko zuen, frantsesa eremu faxistan ibilia zela lehenago berriemaile.

Soldaduek eskuak altxatzeko agindu zieten. Ofizial bat hurreratu zen. Modu zakarrik gabe, jarraitzeko eskatu eta zutik zirauen Juntetxera sararazi zituen. Aguilera zegoen han.

- Ez al dakizue badagoela dekretu bat heriotzara zigortzen dituen eremu nazionaletik gorri-
ra joandako kazetariak?

Galderrek ezin zuen harridura ezkutatu. Lehendik ere entzuna zuen Capon Gernikara bueltatu zela, baina lehen aldia zen aditzen zuena Berniard eta Urkiagarekin atxilotu zutela. Hala ere, gehien harritzen zuena Emma bera zen. Astiro egiten zuen berba zigarro bati zupadatxoak emanaz. Atxiloketaren ofiziala ere, Amor lotinanta, bare mintzo zen. Tabakoa eskaini zien. Berniard eta Capon horma baten kontra eserita zeuden, eskuak lotu barik. Ez zituzten giltzapetu, ez zuten beharrik ikusi. Amor lotinanta zen gelako erretzaile bakarra.

- Ze giro dago Bilbon?

Frantsesak ez zekien deus, egun bi lehenago iritsi baitzen Miarritzetik. Aguilerekin berriro berba egin nahi zuela errepikatu zion lotinantari, Bolini berari deitzeko. Une horretan, Ben Caponek Fernando Arangurenen begitarte ezagutu zuen jende-pilaren artean. Oihu egin zuen. Sartu-irten zebilen jendeari begiratu zion Georges Berniardek.

- Ezagutzen al duzu Aranguren jauna? -jakin nahi izan zuen Amorrekin.

Hark emango zion Marrioten berri. Ez zuen akordu txarrik Arangurenekin Marriotekin Ezkurrarekin Gorritirekin Pamplonan emandako egunez, txapelgorridunen larderia demasekoa gorroto bazuen ere. Heldu aurretik, Marriotek azaldu zion uztailaren hemeretziaren Castillo plaza eta Sarasate ibilbidea hartu zituztela bost mila txapelgorrik odolik isuri gabe. Nonahi entzun zitezkeen Oriamendi. Tira ba, Lozano delako bat garbitu omen zuen baten batek. Madrilera deitu zuen Iruñeko Guardia Zibileko buruak, Rodriguez Medelek. Guardia zibilak Tafallara eramane zitzaizela agindu zioten. *¡Viva la República!*, adoretu zituen bere gizonak. *¡Viva España!*, oldartu zi-

tzaion bat edo beste. Eta tiroa eman zioten lepondoan. Galderrri gomutatu zitzaion Josek antzeko istorio bat aipatu ziola inoiz.

- Santoñan egunero gartsu agurtu behar genduan irabazleen banderea. Goraka eta ca-raelsolaka agurtu be. Behin, barriz, Trintxerpeko galego batek *iViva la República! iViva la Libertad!* oihukatu eban. Bertan akabau eben.

Galder eta Emmak erdialdera jo zuten aspaldiko partez. Ingeles gutxi zebilen turisten lurretan barrena. Piccadilly Circus eta Leicester Squaren oro zen kolonialismo. Oro Underground. Lehor-te luze baten osteko euri-zaparrada bortitzak estoldetan sorturiko buxadura topatu zuten metroko ahoan. Telefono kabinetako hitz gorriak, kabina gorriak. Marx eta Rimbauden auzunean zeuden. Aita Villasanteren herrian.

- Amor lotinanta, gizon hau Ben Capon da, gerra-berriemaile ingelesa.

Lotinantak lurrera botatako zigarrokina zapaldu zuen.

- Ongi asko dakit nor den gizon hau. Armada nazionalaren etsai eta preso da.

Capon eta Berniard aske geratu ziren bihar-munean. Ordurako Marriot ere haiekin zegoen, Fernandok ohartarazita.

- Zure egunkari ingelesak kazetari bakarra behar du -desafiatu zuen Aguilera-. Libre zaude, Capon.

Ezagutarazi zioten Marriot Fernandori esker zebilela Gernikan, nazionalek ez baitzuten ingeles askorik gura lehen egun haietan.

- Non dago Estepan Urkiaga, gure gidaria? -jakin nahi izan zuen Caponek alde egin aurretik.

Amor lotinanta beste zigarro bat erretzen ari zen.

- Gaur goizean eraman dute fusilatzerara.

Emmaren kontaketa taberna bateko barbaro-arekin nahaspilatu zen. Gazte ingelesek, mozkor eginda, tabernari espainiarrak iraintzen zituzten. Tabernari euskaldunak iraintzen zituzten espainiarrak italiarrak portugaldarrak zirelakoan. Oro zen laidoa trufa fuck you. Galder txunditu-egi zegoen ganorazko galderarik egiteko. Bazekien gidari euskalduna ez zutela goiz hartan fusilatzerara eraman.

Kilkenny

Sekula ez zenuen sinetsiko gaurkoa bezalako egunsenti ederra ikusiko zenuenik. Edgware Road Kennington Warren Street Embankment Tower Hill Green Park. Mingaina ateratzen diezu metro-bagoietako bidaiariei. Gaur ez duela Espainiako egunkaririk ikusten komentatu dio saltzaile pakistandarrari bezero espainiar batek.

- Gaur *Egunkaria*, *Egin* eta *Deia* dauzkagu -erantzun dio pakiak.

Erosleak *Deia* eramán du. Ohiko egunkari espainiarrei baino pisu gutxiagokoa iritzi dio. Gaiñaldean *Diario de Euskadi* argigarria darama, irakurleei gaztigu edo. Gogoratu du lehendik *El Correo Español* zeukala irakurrita, eta hark ere argitzen omen zuen *El Pueblo Vasco* zela. Ondorioztatu du hango egunkariak basapiztien antzeri jokatzén dutela lurraldea zehaztu beharrean. Begiradatxo bat eman dio tolestu aurretik: «*Fallece Luis Iturri*». Nor ote da Luis Iturri?

Eremu abertzaleko egunkariak bakarrik iristen dira Londresera. Harrigarria, komunikazio es-

parruan ez baita sekula santan lotu gabeko lokarrik izaten, komunikazio bideak goitik behekoak baitira, zerutik lurrerakoak, infernutik lapikorakoak, eta eremu horretakoak ez daude goialdean, batez ere *Egunkaria*. Batzuek ez dute harridura ezkututzen «*Sarrionandiaren poema bat, musika eta literatura biltzen dituen ikuskitzaren baten ardatz*» eta antzekoak ikustean, baina gehienek, egia aitortzera, ez diote egunkari alemaniar bati edo indiar bati baino arreta handiago eskaintzen. Zuk eskertu egiten duzu informazioa bi hizkuntzatan jasotzea. Nolako hizkuntza halako informazioa ez, baizik eta halako plazera halako zirrara halako goxotasuna. Fionari kontatu behar diozu lehenbailehen.

Fionak hotz erantzun du. Ez zaizu batere gustatu, baina ez duzu haserretzeko inolako arrazoirik. Azken batean, Bill Blass eta *Guernica*-rekin dago arduraturik. Ez du eremu bateko edo beste egunkarien artean zertan aukeratu. Eremuena ez baitago oso argi. Hala ere, azaldu diozu zein zoragarria den ohiko bezero eta noizbehinkako erosleen arteko muga puskatuta ikustea. Beharra ohituren nagusia izaki, batzuek

eutsi behar izan diote egunkaria erosteari, eguneroko zereginarekin jarraitu, denek ez baitaukate sare informatikoa eskura. Beste asko, berriz, titularrak zelatatzera pasa izan dira aukera egin baino lehen, zeuk lehenago igarotako gurutzetakoa. *«Tres de los cuatro detenidos por la Guardia Civil el lunes en Hondarribia manifestaron haber sido torturados y continuamente amenazados de muerte durante los largos interrogatorios a los que fueron sometidos encapuchados sin que estuviera delante un abogado».*

Ezer besterik gura duzun itaundu du Fionak. Ez duzu berehalakoan erantzuten jakin. Duda-mudan ibili zara harik eta baietz esan diozun arte, gero eta egunkari gutxiago saltzen dela, askoren ustez azken aldian Londresera iristen diren egunkariak hamaika gezur, ikuspegi murritz ugari eta albiste interesgarri gutxi dakartzatela. Eta hala da neurri batean behinik behin. Espainiako enbaxadako nekezaleek nahikoa buruko min dute ikasleekin, eta berri bat gehitu zaie. Nola sinetsarazi beraiek ere ez dakitela zer gertatzen ari den prentsarekin? Arazoa uste baino larriagoa baita, nazio arazoa. Heldu dira

kexak jatetxe espainiarretara ETB bakarrik azaltzen delako. Zer arraio axola zaie bezeroei Goñik eta Tabernak Bergarako frontoian irabazi badute? Funtzionario batek ezkutuka irakurri du *Deia*: «*Athletic, grande de Europa. Somos únicos en el mundo*». Bilboko kaleak gainezka omen daude maiatzaren erdialde bero zoro honetan.

Ahotsik goratu ez dutenak, bakarrenetarikoak, saltzaile pakistandarrak. Ingalaterrako egunkariak eta, neurri txikiago batean Amerikako Estatu Batuak India Pakistan Irlandakoek bakarrik ematen dute dirua. Espainiakoez zein Italiakoez kezka franko. Espainiako egunkari berriak datozenetik jende gehiago dabil doaneko miaketan. Ulergarria da. Fionaren jarrera ere bada ulergarria. Osteratxo bat emateko eskatu dizu, baina egunkaririk gabe, mesedez, egunkaririk gabe. Ez dakizu. Udak haginka egin dio udaberriari bosgarren hilabetean. Sekula baino gusturago irakurri ahal da Green parkeko belar ganean. Batek baino gehiagok bere baitarako galdetzen du non ote dauden Farmacia de Guardia Ortega Cano Mar Flores Hierro Luis del Olmo Ansón. Horien hutsa sumatzen dute benetan. Haien ordez, Go-

enkale Harkaitz Cano Gloria Urtiaga Lizaso Eugi Kike Amonarriz Pepe Rei azaltzen dira. Baita Jon Idigoras ere. *«El veterano dirigente abertzale agradeció al pueblo vasco su excarcelación e instó a luchar por los presos, labor a la que se comprometió en la medida de sus fuerzas».*

Espainiako hedabideen hutsa nabaritzen hasia zara zeu ere. Non ote daude beste egunkariak eta Espainiako telebista eta irrati publikoak? Eta Fiona? *«La ciudad condal se convierte hoy en la capital del Reino con motivo del enlace matrimonial de Su Alteza Real la Infanta Doña Cristina con Iñaki Urdangarin».* Ni Crouch End-en bizi nauk. Autobus bera hartuko diagu. Oheratu haiz nire lehengusinarekin? *«El dirigente de Unidad Alavesa Pablo Mosquera aseguró ayer que en los carteles de hospitales y centros sanitarios de Alava priman en color y tamaño las frases en euskera, lo que produce 'una frecuente y grave desorientación' a la mayoría de los alaveses».* Inoiz ez duk Ei Bi Si erosten, Galder. ABC dun. *«¡A la cárcel!».*

Bueltan nahi dituzu.

If I'm free it's because I'm always running

JIMI HENDRIX

- Emmak deitu dik, hire lagun ingelesak.

Galder Hackneyn metrora sartu eta Green Parken Victoria lineara aldatu zen. Eguna eman zuen East London line Bakerloo line Jubilee line Northern line Metropolitan line Hamersmith & City line. Sagutxoan gainetik pasatzen zen trenea. Hau tuneletan galtzean, haiek korrika egiten zuten. Galder konturatu zen hiritarrak ez zirela sagutxoekin ikaratzen. Ez zieten nazka ere ematen.

Londres lar kosmopolita bihurtu zitzaion. Bihotza taupadaka hasten zen hiri-erdialdeko geltokietara hurbiltzen zenetan. Begirada galduak ekartzen zituzten goizak eta gauak. Gero eta nekosoagoa zitzaizkion elkarrizketak azentuak hitzak begiradak orrazkerak metroaren lengoia. Metroko sagutxoak. Metroko trenak. Itsa-

soko uhinak ziren, beti joan-etorrian, itsasgora goizeko zortziak laurden gutxiagotan eta itsas-behera arratsaldeko bostetan. Urik gabeko itsasoa zen. Biktimarik gabeko itsasoa.

Metroak asfaltoak argiek taxi beltzek irlandar erako tabernek Green Parkeko katagorriek indioen durbanteek alkohol-dendetako Kaliforniako ardoek telejanariak nesken betazal margotuek garbitegi ederrek eta eraikin ofizialetako bandera britanikoek neka-neka eginda lagatzen zutela erabaki zuen. Emmari egindako traizioa Emmak egindako traizioa zen.

- Londres ez duk inori ihes egin ahal izateko horren handia. Bazakiat haitzulo horretan hagoela. Deituko al didak?

Bi mezu zeuden erantzungailuan. Emmarena zen lehena. Bigarrena ere Emmarena.

Greban zeuden zabor-biltzaileak. Poltsa beltzek berehala gainezkatu zituzten kontenedoreak, greba barik astean behin jasotzen baitzituzten. Kronenbourg poteek poltsen erdia betetzen zuten bederen. Zinemara tabernetara lagunen etxeetara dantzazuloetara joatea gero eta gogorrago egiten zitzaion. Zertarako kaleratu,

garagardoa etxean bertan edan bazezakeen? Gero eta sarriago edaten zuen pisukide italiarrek. Errazago onartzen zituen haien burrunbak dinbi-danbak plaustak. Jainkoa DJ bat zela zioen beltz burusoil bat gurtzen zuten. Galderrek ere gurtzen zuen apurtxo bat. Gelako koltxoian jեսartzen zen. Batzuetan Donnatella kontu-kontari joaten zitzaion aldamenera. Italiarrak barre egiten zuen zurrut egiteari utzi gabe. Graduaziorik gabeko betaurreko beltzak janzten zituen. Baziren aste batzuk Donnatellarekin oheratu nahi zuela.

- Badakin, Donna? Aguilera kapitainak ziri ederra sartu zionan kazetari frankistari. Putakume galanta!

- Tutti gli spagnoli siete matti. Zoro hutsak zarete.

Fernando hil duk, amaitu zen Emmaren bigarren mezua.

Neguaeren amaieran, kanpotik etorritakoek behe-lainoaren hutsa nabaritu zuten. Bere buruari galdetu zion ez ote zen mito hutsa. Ez zuten sekula jakingo. Ez eben jakingo. Hiri erdialdeko kalezuloetarantz ikusten zituen Galderrek

gaueko lokamutsetan; egunekoetan, osteran, Buckinghamgo soldaduek gorrotatzen zituzten gogotik; ahoa bete hortz geratzen ziren luxuzko dendetako erakusleihen aurrean, ezin sarturik; lerdea isurtzen zitzairen kalerik dotoreenetan barrera; eta zirrara berezia sentitzen zuten multinazionalen tabernetan mutil suediar batek lager bat jartzen zirenean.

- Fernando bere ohean hil duk. Hantxe aurkitu dik errentatzaileak.

Emmaren bigarren mezua entzun zuen lehen uneko akordu garbirik ez zeukan. Hiru edo lau aldiz jarri zuen erantzungailua berria segurtatzeko. Sentitu zuenaz ere ez zen oso ongi oroitzen. Hustutako Bud botila haietako bat bezalaxe sentitu zelako irudipena zuen. Seguru zegoen behintzat, inoiz ez zuela Fernandoren heriotza hain mikatza irudikatu. Agerian zegoen, lehenago horretaz pentsatu izan balu, Fernandok bere bakar-dadean hil beharra zeukala, bere ohean, edo bere gelako sofan, argazkien irudi beltzen liburuaren testamentuaren artean. Haren heriotzak ez zuen gehiegi atsekabetzen, goizago edo beranduago gertatu beharrekoa baitzen, baina inork

ez zuen Londresko errentatzaile zikoitz bat leku-ko izaterik merezi.

Konkordeak zerua urratu zuen. Londresko zerutik bi minutuan behin igarotzen da hegazkin bat Heathrowra Gatwickera Stanstedera. Galder ohitu gabe zegoen artean. Aireportuan bezain galdurik sumatzen zuen bere burua afrokaribearen auzune hartan. Emmak jakinarazi zion zorrretan zegoela berarekin, Ben Caponek ez ziola lanik egin Gobernuari, Alexander Marriotek baik. Foreign Officeri. Galder begira geratu zitzaion, harrituta. Fernando ere zur eta lur gelditu zen Capon berriro Madrilen ikusi zuenean. Marriot Londresen zen ordurako. Aste bi baino gehiago ziren gerra amaitua zela.

- Burutik egin zaik? Badaki Bolinek hemen hagoela?

- Bada horrek ez dakienik?

Ben Caponek esku bat jarri zion sorbaldan, lasaitu nahian. Fernando Aranguren ministerio batean hasi berria zen.

- Hemen ez hago seguru. Bazakitek zer idatzi huen Guernicaz.

Caponek irri txiki batekin erantzun zion. Apirileko eguraldi grisari aurre egiteko, kafe triste bat edatera gonbidatu zuen. Erlojua begiratu zuen Galderrek. Belu zen. Kanean oro zen Southern Comfort pinta Jack Daniel's pinta-erdi Orangina Smirnoff Canada Dry. Neskak binaka sartzzen ziren komunetara. Emmak azaldu zion egunkariak erabaki zuela, Madril jausi ondoren, erreportari bat eduki behar zutela alde hartan. Fernandok ospa egiteko agindu zion Caponi. Lehenbailehen. Arrazoi bat edo beste, bere laguna zen. Espainiak bere Franco zuen bere Negrin bere Ramiro de Maeztu bere plaza nagusiak bere argindarrik gabeko herriak bere kanpandorreetako erlojuen itzalak arratsaldeko lauretan. Baita mendeari bizkarra emateko modu berezia ere. Ongi aski zekien hark zer gertatu zen apirilaren hogeita seiko arratsaldean. Eta hala ere laguna zen.

Galder zorioneko testuaz gogoratu zen, non entzun gura zituen azalpenak emango baitzituen Fernandok. Emmak ez zizkion emango, behinik behin.

- Testamentuaren bila ibili nauk, baina alferrik.

- Nola alferrik?

- Ez diat aurkitu. Idazki guztiak gainbegiratu ditiat hirutan gutxienez. Ez zagok ezer.

- Ez din hiretzat utzi?

- Ez.

- Benetan? Buru-hankarik gabekoa dun halako testu bat idaztea hil aurretik inori ez emateko.

- Gerra Zibileko argazkiak bakarrik utzi ditik. Ez zakiat non dauden idatzi horiek.

Testua beretzat ez zela bazekien arren, Galderrek urtebeteko garagardo guztiak emango ziotuen Fernandok zer idatzi zuen ezagutzeagatik. Zer Caponen heriotzaren gainean. Seguru baitzegoen, autoa erre aurretik garbitu zutela. Jakingura mingarriarekin konformatu beharko zuen. Beharbada ez zegoen libururik. Beharbada damutu egin zen eta azken unean erre egin zuen. Auskalo. Zentzubako ematen zuen testu bat prestatzea, baldin eta ez bazegoen oso gauza inportante bat inori esateko. Josek berak ere onartzen zuen hura. Larrinagako gertaerekin

gomutatzen zen batez ere. Lapa haitzari nola, hala itsasten zitzaizkion hilketa basa haiek. Berandu iritsi zen, Monzon eta Polizia Motorizatukoekin batera. Preso eskuindarren gorpu odoleztatuek presondegiaren barren-goiak lohitzten zituzten. Gorpu mutilatu batzuk ere bazeuden barreiatuak. Bilboko egunkariak txikertutakoen berri eman zezaten agindu zion Leizaolak Arbex zentsoreari. Eman egin zuten. Baita atzerriko egunkari eta irratiek ere.

- Baina eskribidu, saldukeriaz eskribiduko neuke nik! Gerrea akabau aurretik, zezeilaren 27an ezagutu eben ingelesek Francoren gobernu. Alejandro Goicoecheaz eskribiduko neuke! Aldarazitako hizki guztiez! Southamptonez!

Galder ez zegoen pozik. Irrikan zegoen jakiteko zergatik eduki zuen Emmak isilean Fernandoren eta bien arteko harremana. Litekeena zen, baita ere, Fernandoren idatzia Emmak gorde izana. Antza denez, esandakoa baino pixka bat gehiago zekien beti. Baina, usteak uste, ez zuen zirikatu nahi.

Hura agurtu ostean, Victoriara sartu zen. Nequaren amaieran kostata ulertu zuen metroko

enplegatuaren ahots axolagabea. Line hartako lanek atzerapenak omen zekartzaten atzera ere. Bidaiari errukarren orkatilei erreparatu zien, King's Road eta Sloane kaleetako zapata-denda garestietan bortxaturiko orkatilei Green Parkeko zelaietan puskatzeko orkatilei baso urbanoaren asfaltoak handitutako orkatilei Royal Ballet-erako orkatilei egunaren luze zoroak gorrituriko orkatilei maitemintzeko orkatilei maiteminez hiltzeko gisako orkatilei. Metroa etorri orduko bul-tzaka hasi ziren bidaiariak, mantsotu gabeak be-ratu gabeak londreseratu gabeak. Barruan, ha-maika begitartek orkatilak irentsi zituzten.

- Orkatila diok? Hara bestea! Ez zagok arterik orkatiletan.

Artea kanpoan eta barruan, egin zuen arra-postu Galderrek bere artean. Londresek euria zekarren. Londresen ezin zaio euriari ihes egin. Batera eta bestera begiratu zuen, ahaleginetan. Neguko jantziek senperrenak egiten zituzten or-katilak ezkutatzeko. Bere aurrean emakume lu-zanga bat *Newsweek*-era kiribildu zen buru guz-tien gainetik. Bagoian oro zen Guggenheim Come to Bilbao Bravo Spain.

Kronenbourg 1664

«La cooperativa de enseñanza AEK, importante fuente de financiación de la banda terrorista ETA, está utilizando dinero público, que obtiene gracias a subvenciones oficiales del Gobierno Vasco, para editar libros en los que se presenta a los ciudadanos vascos como víctimas de un genocidio español. Además proponen ejercicios como determinar los 'rasgos físicos' de los euskaldunes». Ez da erabat zentzugabea Londresen, egunero orduak ematen baitituzue inoren ezaugarri fisikoak zehazten. «Hori afroingelea dun, nigeriarra beharbada». «Nigeriarra? Nola-tan nigeriarra, zanbiar eta hegoafrikar baten artean bereizteko gai ez bahaiz?». «Parson Green-era jaitsi dena italiarra dun, bistan zagon». Euskaldunak alemaniar, bulgariar edo portugaldarrak zarete gehienetan, espainiarrak edo franziarrak onenetan, bereizgarririk gabe. «Hori espainiarra duk». «Nola dakin?». «Bistan zagok, beltzarana, ezpain haragitsuak eta ez oso luzea.

Latinoen ederra zaukak». Fiona barik, asmatu egin duzu elkarrizketa.

Udaren etorrerak ekaineko kazetei eragin nahi die. «*Lo escribíamos hace unos días: la encrucijada para el nacionalismo democrático es sencilla: o Constitución o barbarie*». Egia aitortzera, gauero entzuten duzu, eta ematen du luze gabe hautaketa egin beharko dutela, batera edo bestera. Garbi daukazu egin beharrekoa, aukerarik emango dizuten argitu barik dagoen arren. Fionak ere argi dauka, ez du aukerarik eman. Pisukideak ere ez du aukerarik eman. Ez dagoela. Ez dela egongo. Jakin duzu presidenteak izena aldatu nahi diola Espainiari. «*España se llama hoy Federico*» irakurri duzu, irakurri duzunez. «*El presidente del Gobierno homenajó y recitó al poeta en la Residencia*». Roland Garros irabaziz gero, Arantxa esango dio; eta Mundiala irabaziz gero, Raul. Egun hauetan egunkariak ez dira metroan irakurtzen, parkeetan baizik.

Hilaren azken kazeta Bunhill zelaietako pape-rontzi batera sartu duzu, *The Evening Standard* baten gainean. Metroan eleberriak soilik irakurtzen dituzu, eta ez linea guztietan. Egunkarieta-

koa ulertzekoa da, batez ere kanpokoetako, hauexek baitira sasoi aldaketa gehien nabaritzen dutenak. «*La madre de la pistolera etarra muerta sabía que su hija 'no acabaría bien'*». Lehenengoz joan zara Bunhill-era deus berria topatuko zenuelakoan. Sarri ahalegintzen zara horretan, kasik egunero, horretara bultzatzen zaitu baso urbanoak. Orrazkera berdinak hitz berdinak agur berdinak laztan berdinak ibilera berdinak euri-tanta berdinak haserrealdi berdinak aurkitzen dira. Fiona berdinak. Oroipen berdinak. (Bill Blass berdinak, *Guernica* berdinak). Bunhill ez da salbuespena, bere belar ingeles oso berdinarekin. «*Quien conocía a la etarra desde pequeña asegura que ya en la ikastola era muy reivindicativa y que incluso alguna vez tuvo problemas en alguna casa en la que trabajó, por su activismo independentista*».

Hil berriak ez dio gonbidapen berezirik egin irratitari. Radio Racional entzuten duzu, Bud batzuk aldean eta parasetamola begi-bistatik galdu barik. Ez da zurea, zuk amatatu egin duzu. Beraiaz. Kartzela bihurtu duzu zeure gela. Hala ere, garbi entzun duzu Etxeberria jokalaria espainia-

rrak gol bat sartu diola Bulgariari eta «*agentes de la Policía Nacional han encontrado una mochila con lo que se presume que es material de secuestro de los terroristas vascos*». Egia esateko, gero eta nekezago zaizu irratiko mezuak en-delegatzea. Gero eta nekezago piztea. Baliteke hark bere burua oroipen bihurtu gura izatea (Fiona, utziko al didan irratia gaur gauerako?). Oso lotuta ikusten duzu orain berari. Zurrut egin duzu Diana ahaztaraziaren akorduan. Lehen Diana erran duzun tokian Fiona diozu orain. Beste zurrutada batzuk eman dizkiozu.

«*Murió Lili Alvarez, la pionera del tenis español*». Londresko udako bero larria bero koldarra da, etxeetako teilatu beltzek eragindakoa, bero zuria bero faltsua bero koldarra. Kultura bat eta bakarra da, une zehatzean jasotzen duzuen. Liliren heriotzak zer pentsatua eman dizu. Zalan-tzak jota zabilta. Fionarena bat besterik ez da, azken batean. Aste batzuk dira ez duzuela elkarrekin berba egin. Bere ahotsarekin gogoratzen zaren bakoitzean, pisukidearena ere badatorkizu gogora. Negar egin behar ote diozu ezagutu ez duzunari?

Egunkaria berreskuratu beharra daukazu. Parkera heldu zara. «*Llegamos. El local de HB, la Herriko Taberna, que siempre ha sido un chis-cón, tiene el marco ennegrecido del incendio, la única ventana tapada con un tablón de aglomerado y un cerrojo nuevo en la puerta. Llamamos y abre una chica con un perro y el típico look macarra y alternativo que le va a esta gente. No hay mayores txikiteando, como el año pasado, sólo una pandilla de mocosos jugando a mayores y poniéndose gallitos*». Ez duzu Blanco hil osteko akabatutako zinegotzien izenik gogoratzen. Azken atentatua ekainekoa izaki. Ahaleginak egiten dituzu behin eta berriro, alferrik. Badakizu batzuk izan direla, baina nongoak diren ere ez zenuke asmatuko. Haren akordua, ordea, garbia da, izen organikoa da, harrabotsua kalapitaria tematia. Ez, ez da denbora. Fiona ere lausotzen ari zaizu, eta luze gabe oroipen tetraplejikoaren artean egongo da. «*¿Periodistas? ¡Agur! No queremos hablar con vosotros, largaos*'. Y nos echan. Me quedó la imagen en la retina: un chaval gordo y rubio, una morena de unos diecisiete años, con camiseta violeta y cutre, y un par de

niñatos más. Los gloriosos retoños de la heroica revolución».

Parquetik bueltan neka-neka eginda zaude. Etxeko eskailerek pot eginda uzten zaituzte. Zahartzaroan sartu zaren susmoa duzu. «*'Ser abuelo es muy bonito', afirmó ayer Su Majestad el Rey*». Gogotik gorroto dituzu eskailerak. Bestalde, etxejabeak aipatu du errenta igo behar duela, adeitsuki aipatu ere. Putakumea halakoa. Kokoteraino zaude. Beste auzune batera ospa egin nahi duzu. Urrun gabe, merkea da Hackney, komunikazioa txarragoa bada ere. «*Se parece a mí y la Infanta dice que tiene cara de Borbón*». Alde egitea daukazu onena.

Begiak itxi aurretik azken lerroak irakurri dituzu. «*Egin, correo de la muerte. Todo apunta a que Egin está, como los comandos de pistoleros, los informadores y alborotadores a sueldo, bajo las órdenes de ETA y actúa en su seno como la vara sobre la que se enasta la acerada pala del hacha*». Iruditu zaizkizu gau parteko ahots karrikeriak, Belgraviako newsagents bateko titulu gaztelerazkoak, Fionaren deus ez duzu ulertu nahi etengabekoa, ez zenari uko faltsua, *Another*

Brick on the Wall, balediko telefono deia, zeure buruari egindako zinak xaboizko burbuila bihurraztea, Steve eta Helenen zorabioak, irratia piztea, bolumena igotzea, irratia itzaltzea eta biharamuneko egunkariaren albistea asmatzen saiatzea, sexuari ematea. Emmarekin gogoratzea, aspaldiko partez. *Egin* ixteak ez du ezer ekarri. Ez denak ezin du kalterik egin. Ez zen, ez da, ez da izango. Bazela garaia, esan dute Radio Exterior de Españan.

Fernando Aranguren Orbaizeta
Brixton, 1998ko uztailaren 28an

*Eskerrik asko
Eneko, Alazne, Asier, Gorka, Koldo eta
nobela erretzeko eskatu zidanari*